

Gary Louris gaztelekuan

Kraig Jarret Johnson izan zuen lagun

KULTURA, 20-21



Aloñak 1-0 irabazi zion Trintxerpe taldeari

UDak 3-1 irabazi du eta Mondrak ere garaipena ekarri du Zestoatik

KIROLA, 12-13

UEK taldea Espaloian

Diskoa aurkeztu zuten barikuan

KULTURA, 23



Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko apirilaren 3a • 3. urtea • 96. zenbakia • 0,90 euro

Torlojugintza sektoreak arazoak ditu lehiakorra izaten jarraitzeko

Egoera aztertzeko bilera egin dute Bergarako Miguel Altuna institutuan sektoreko arduradunek

Torlojugintza sektoreko arduradunak kezkatuta daude, azken urtebetean hemengo enpresen fakturazioa %30 jaitsi da-eta.

Sektorearen ahuldadeak aztertu eta hartu beharreko neurriak adosteko egin zuten eguenean batzarra hainbat enpresatako arduradunek Bergaran. Eta hiru ondorio atera zituzten bilera hartan: Bruselara muga-zergak ezar-

tzeko eskaera bideratuko dute, altzairu hornitzaileei presio egingo diete lehengaiaren prezioa jaits dezaten eta, azkenik, espezializatorantz jotzeko ezinbestekotasuna nabarmendu zuten.

Bergarakoa izan zen torlojuen sektoreko arduradunek egindako lehenengo batzarra. Beste hiru egingo dira, Valentzia, Bartzelona eta Madrilan. **2-3**

LEHIAKORTASUN HANDIA
Sektoreak arazo larriak ditu Asiatik etorritako produktuen prezio txikiei aurre egiteko

LEHENGAI GARESTI
Estatuan hiru altzairu hornitzaile daude eta nahi dituzten prezioak inposatzen dituzte

BALIZKO IRTENBIDEAK
Muga-zergak ezartzea, altzairu hornitzaileei presio egitea eta espezializatzea dira sektorearen etorkizuna

IBARREAN 540 LANGILE
Debagoienean torlojugintza sektoreko 12 etxe daude; 540 bat lagunek egiten dute lan tailer horietan

Ikasleen itxialdia HUHEZIn

Bolognako Prozesuaren kontra egiteko itxialdia deitu du IAK HUHEZIn. Gaur hasi eta eguenera bitartean egingo dute itxialdia ikasleek. Egunotarako egitarau zerrenda antolatu dute, hitzaldi eta bilkurak tarteko. **8**

Litroak edateko deiak ez du gurean ere erantzunik jaso **7**

Bolinaga eta Jimenez arrasatearrek irabazi dute Udaberri Pilota Saria **17**



JOSETXO ARANTZABAL

BIKOTE ASKO HURBILDU ZIREN ATZO IBARREAN EGIN DEN I. EZKONTZEN AZOKARA

Arrakastatsua izan da, antolatzaileen esanetan, Debagoieneko I. Ezkontzen Azoka. Atzo egin zuten, goiz eta arratsaldean, Eskoriatzako Mendigoia hotelean. Ezkontzetarako produktuak egon ziren ikusgai azokako 20 erakusmahaietan -14 ziren ibarrekoak- eta beherapenak lortu ahal izan zituzten bertara hurbildu ziren bikoteek. Desfileak, produktu dastatzeak eta opari zozketak ere arrakasta handia izan zuten. **4**

GEUREAN

- Gazte Topagunera autobusez joateko txartelak salgai daude Arrasaten | 6
- Inaxio Oliverik ekainean lagako du MUko erretoretza erretiratu egingo delako | 5



Karmen Irizar azkoitiarra da zapatua ezkerro Topaguneko lehendakari berria | 7

KEZKA TORLOJUGINTZA SEKTOREKO ARDURADUNEN ARTEAN



JOSETXO ARANTZABAL

Lehiakorrak izaten jarraitzeko espezializazioaren aldeko apustua egin beharko dute euskal ekoizleek, eta horrek inbertsioak egitea dakar.

Sektoreko datuak

540

Debagoienean torlojugintza sektoreko 12 etxe daude; 540 bat lagunek egiten dute lan tailer horietan. Eta 20 langile baino gutxiagokoak dira sei.

8

Asefi elkarteak Bergaran antolatutako bilerara Debagoieneko zortzi ekoizpen etxek bidali zuten ordezkariak.

+ %70

Sektorean erabili beharreko materialen prezioa %70 igo da azken hiruzpalau urteetan. Txinatiko produktuekin lehiatzea ezinezkoa zaie.

- %30

Azken urtebetean %30 jaitsi da hemengo enpresen fakturazioa. Neurriak hartzea ezinbestekoa dela ondorioztatu zuten bileran.

ENPRESA ETA LANPOSTU ASKO ARRISKUAN | SEKTOREKO ARDURADUNEK BATZARRA EGIN ZUTEN EGUENEAN BERGARAN

Sektoreak muga-zergak ezartzeko eskaera bideratuko dio Bruselari

Sektoreak arazo larriak ditu Asiatik etorritako produktuen prezio txikiei aurre egiteko

Altzairu hornitzaileak, gainera, lehengaiaren prezioa igotzen ari dira eta arazoa areagotu egin da

Larraitx Zeberio

Torlojugintza sektoreko arduran kezkatuta daude, askok sektorea krisian dagoela diote. Eguenean ASEFIk (Espainia mailako torlojuen sektoreko elkar-tea) Bergaran egindako bilerara torlojuak egiten dituzten enpresetako ordezkari asko agertu ziren.

Batzarrean ondorioztatu zenez, hiru dira sektoreak dituen arazoa nagusiak: Txinatik datozten produktuen lehiakortasuna, altzairu hornitzaileek lehengaiari inposatzen dizkioten prezio igoerak eta bezeroek duten boterea prezio igoera horiek produktuen ekoizpenean dakarten gainkostua ez onartzeko.

BALIZKO IRTENBIDEAK

Sektoreko arduradunek iritziak trukatzeko aukera izan zuten eguenean Miguel Altuna institutuan egindako batzarrean.

Hiru lan lerro aipatu zituzten batzarrean: alde batetik, Bruselara muga-zergak ezartzeko eskaera bideratzea. "Ehungintzan eta altzairu herdoilgaitzaren kasuan lortu duten moduan guk ere *dumping*-aren aurkako neurriak hartzeko eskatuko diogu Bruselari", azaldu du ASEFIko kide Jose Maria Andonegik. "Prozesu luzea izango da, txosten ugari aurkeztu beharko ditugulako, baina dagoeneko lanean ari gara esperientziadun aholkulari batekin".

Bigarren lan lerroa altzairu hornitzaileei presio egitea izango da. "Estatuan indar txikia dugu, baina ekoizle italiarrek batera presio handiagoa egin

dezakegu", azaldu digute ASEFITik. "Italiarrak gure egoera berean dira eta Europako torloju ekoizle handienetakoa da. Dagoeneko elkarlanean jarduteko prest agertu dira, gainera".

Lehiakorrak izaten jarraitzea da ekoizleen ardura nagusia

"Gero eta produktu konplexuagoak egiten saiatu behar dugu, lehiakortasuna txikiagoa delako"

Azkenik, espezializazioa nabarmendu zuten enpresetako ordezkariak; izan ere, erakundeek hartu beharreko neurriez gain, badakite eurek ere aldatetako egin beharko dituztela ekoizpen prozesuan. "Gero eta produktu konplexuagoak egiten saiatu behar dugu", zioen sektoreko ekoizle batek. "Pieza landuagoen eta teknikoagoen sektorean lehiakortasuna ez da horren gogorra, baina inbertsio handia eskatzen du horrek". ASEFIko kide Jose Maria Andonegiren ustez, Alemaniaren kasua da hau: "Europako torloju ekoizlerik handienetakoa da Italiarekin batera, baina espezializazio maila oso altua du. Bruselari muga-zergak ezartzeko eskaera bideratzea proposatu genuenean ez zuten txintik ere esan. Nonbait ez daude gure egoera berean".

KEZKA TORLOJUGINTZA SEKTOREKO ARDURADUNEN ARTEAN

• SEKTOREAREN AHULDADEAK AZTERGAI

Bergarako izan zen ASEFIk egindako lehenengo bilera


Torlojuen sektoreak garrantzi handia du gurean. ASEFI elkarteko arduradunek horregatik aukeratu zuten Bergara lehenengo bilera egiteko. "Sektorea duela 10 urte hasi zen beherakada nabaritzen, baina altzairu hornitzaileek 2004an inposatutako prezio igoeraren ondorioz egoerak nabarmen egin du okerrera", adierazi du ASEFIko kide Jose Maria Andonegik. "Martxo hasieran zonakako bilera deitzea erabaki genuen, elkartu eta hartu beharreko neurriak eztabaidatzeko". Lau bilera deitu ditu ASEFIk, lehena Bergaran egin zena. Besteakartzelona, Valentzia eta Madrilen egingo dira.

Lehiakortasun handiena produktu estandarren ekoizpenean dago

Asiako ekoizleek produktu estandarren ekoizpena egiten dituzte gehienbat, eta produktu horietan ekoizpena egiten dute lehiakortasun handiena. Prezio oso txikietan ekoiztea lortzen dute eta europar ekoizleek arazo larriak dituzte merkatu horretan lehiakorak izaten jarraitzeko.

Duela 20 bat urte azkoinen (tuerkak) krisialdia etorri zen bezala, orain torlojuena dago. Arazo bera dute zirindola (arandelak) zein errematxe ekoizleek. "Zalantzarik gabe, dagoeneko espezializazioa jo ez duten ekoizleek arazo larriak izango dituzte aurrerantz", esan zuen ASEFIko kide Jose Maria Andonegik.

• IKERKETA MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN



IRTENBIDEAK AZTERTZEN. Bergarako Miguel Altuna institutuaren sektorearendako oso interesgarria izan daitekeen proiektua dute esku artean. Bi ingeniari torlojuaren fabrikazioan erabakigarria den alantzearen eraldatze proiektua aztertzen ari dira. Horrek ahalbidetuko luke denbora laburragoan pieza gehiago egitea.

DENETARIKO IRITZIAK

Egueneko bileran arazo hauek guztiak izan zituzten hizpide sektoreko arduradunak. Batzuk lehenengoaren ikusten dute Bruselara muga-zergak ezartzeko eskaera bideratzea baina ez denek. "Denbora pixka bat irabaziko genuke, baina hori ez da arazoaren konponbidea", adierazi digu Bergarako Tritor, SL enpresako arduradun Pedro Alberdik. "Zazpi edo zortzi urteko epea izango genuke gehiago espezializatze baina Asiarrak ere laster hasiko dira pieza espezializatua egiten. Nire ustez gehiago lortuko genuke altzairu hornitzaileengan prezioak jaisteko presio gehiago egingo".

Kontu honetan ekoizle guztiak bat datoz. Altzairu hornitzaileak min handia egiten ari dira. "Oligopolioa handia da. Esta-

tu mailan hiru altzairu hornitzaile besterik ez daude eta nahi dituzten prezio igoerak inposatzen dizkigute. Txinan, altzairua merkeagoa da".

Aldi berean zabalduta dago torloju sektoreko arduradunen artean atzerriko enpresen lehia ez dela garbia. "Nola da posible altzairua Europan erosten duen fabrikatzaile txinatar batek lehenengoaren prezioa baino salneurri merkeagoan ateratzea produktua kalera? Argi dago hori diru-laguntza batzuk daudela. Ez gara berdintasun egoera batean lehiatzen ari".

ASEFIk Bergaran egin du sektoreko lehenengo bilera. Orain beste hiru egingo dituartzelona, Madril eta Valentzian. Sektoreko arduradunetako gehienak berri eman, iritziak bildu eta indarrak batzea da helburua.

"Prezioak jaistera behartu behar ditugu hornitzaileak"

Debagoieneko torlojugintza sektoreko arduradun gehienek iritzia da, 2004an prezioak ia %100 igo ziren-eta

L.Z.

Muga-zergak ezartzeaz gain, Debagoieneko torloju fabrikatzaileek uste dute ezinbestekoa dela sektorearen iraupenerako altzairu hornitzaileekin prezioak negoziatzea.

PEDRO MUÑOZ |
TORNILLERIA DEBA, SAL
"Hornitzaileek prezio igoera gehiago iragarri dituzte"
"Asiatik produktu merkeagoak datoz, altzairu hornitzaileek igoera gehiago iragartzen dizkigute... Sektoreak etorkizun iluna dauka, Europa mailako muga-zergak ezartzen ez badira".

IÑAKI GOIKOETXEA |
ESPYTES, SA
"Especializazioa da sektorearen etorkizuna"
"Lehiakortasuna handia da eta sektore honek uzten duen mozkin-marjina gero eta txikiagoa da. Pieza landuagoak eta teknikoagoak egitera bideratu behar dugu ahalgina. Hor dago etorkizuna".

PEDRO ALBERDI |
TRITOR, SL
"Hornitzaileei presio handiagoa egingo nieke"
"Burdin hornitzaileek nahi dituzten prezioak inposatzen dizkigute. Arazoa erroto konpondu ordez adabakiak jartzen ari gara eta



JULEN IRIONDO

Interes handia piztu zuen sektoreko arduradunengan Bergarako batzarra.

zoritarrez gure egoera hori baino askoz ere gogorragoa da".

IÑAKI ZALDUA |
ECENARRO, S. COOP.
"Produktu konplexuagoetan espezializatzea da bidea"
"Kalitatezko ekoizpena egin behar dugu lehiakorak izaten jarraitzeko. Eta produktu konplexuetan espezializatu behar dugu".

JULIO VICENTE |
INDUSTRIAS URCELAY, SA
"Muga-zergak ezartzeak gainbehera geldituko luke"
"Ehungintza sektorekoek muga-zergak ezartzea lortu dute eta guk ere bide hori jorratu behar dugu. Agerikoa da txinatarrek dirulaguntzak jasotzen dituztela. Ez dira garbi jokatzeko ari".

MILA RETOLAZA |
MATZ-ERREKA, S. COOP.
"Muga-zergak lagungarriak izango dira, baina ez dira arazoaren konponbidea"

"Arazoa larria da. Automobil-industriako ekoizleak dira gure bezerorik nagusiak, eta Asian ekoizten hasi dira zuzenean. Nire ustez, espezializazioa da sektoreak egin behar duen apustua".

JON LETURIA |
TORNILLERIA SEGUR, SA
"Bezeroek ez dituzte gure prezio igoerak onartzen"
"Guk produktua aldatzea erabaki genuen, espezializatzea. Bruselak oztupoak jartzea lagungarria izan daiteke, baina ez da soluzioa. Hornitzaileek lehengaiaren prezioa jaitsi beharko lukete".

CARLOS ZANGITU |
INDUSTRIAS ZANGUITU
"Muga-zergak eta lehengaiaren prezio jaitziera lortu behar ditugu"
"Estatuan hiru altzairu hornitzaile daude eta nahi dituzten prezioak inposatzen dizkigute. Batera presio handiagoa egingo dugu bi helburu hauek lortzeko".



JOSETXO ARANTZABAL

Duela hamar bat urte hasi zen sektorea zailtasunak nabaritzen. 2004a ezkerko egoerak nabarmen egin du okerrera.

EZKONGAIEN AZOKA | ARRATSALDEZ MENDIGOIA HOTELA JENDEZ GAINEZKA EGON ZEN



JOSETXO ARANTZABAL

Desfilean ezkongaien jantziak erakustez gain ama pontekoendako eta aitabitxiendakoak ere erakutsi zituzten.

Ikusmin handia sortu du ibarrean egindako lehen ezkontzen azokak

Esperientzia ona izan dela ikusita datorren urtean ere azoka egitea aurreikusten dute antolatzaileek

Larraitx Zeberio

Pozik agertu dira azoka amaieran bertan esku hartu duten erakusleak. Hogei izan ziren azkenean -14 ziren ibarrekoak- eta beherapen interesgarriak eskaini zituzten azokara hurbildutako ezkongaei.

"Oso pozik gaude azokak izandako arrakastarekin", azaldu digu azokaren antolakuntzan ibili den Jose Antonio Martinezek. "Erakusleak gustura gelditu dira eta gehienek datorren urtean azoka berriz ere antolatzeko proposamena egin dute. Egia esan, jende asko etorri da".

Gaueko 21ak arte egon zen zabalik azoka Eskoriatzako Mendigoia hotolean. "Ez dakigu oraindik zenbat bikote etorri diren", esan zigun Jose Antoniok atzo gauean. "Baina asko izan dira. Arratsaldean, batez ere, azoka jendez gainezka egon da".

Oinetakoak, loreak, gonbidapenak, musika, emaztegai-soinekoak, jantziak, bidaia agentziak, argazkilariak, estetika zentroak, ile-apaindegiak, antzinako autoak, oheak... denetarik produktuak egon ziren ikusgai azokan eta ezkongaei nahi beste galdera eta aurrekontu eskatu ahal izan zituzten sektoreko profesionalak.

DESFILEA GOIZ ETA ARRATSALDEZ

Azokako ekitaldi indartsuenetako bat moda desfilea izan zen. Hamabi modelo aritu ziren ibiltokiaren gainean azken tendentziak erakusten.

Lehenengo gonbidatuendako jantziak eta soinekoak egon ziren ikusgai. Guztira gizonetzkoendako 9 jantzi eta emakumezkoendako 25 diseinu. Emaztegaiendako 15 soineko erakutsi zituzten modeloek ibiltokiaren gainean eta senargaiek ere izan zuten non aukeratu 11 jantzi ezberdin egon baitziren ikusgai.

Gustura jarraitu zuen desfilea Mendigoia hurbildutako publikoak, gehienak ezkongaiak baina beste asko kuxkuxeroak.

Azokari amaiera emateko xanpain eta pastel dastatzea egon zen baita opari zozketa ere.

• AZOKAN BILDUTAKO IRITZIAK



JAVI ETA SAIOA |
EZKONGAIK

"Irailean ezkontuko gara. Soinekoak eta argazkilarien lana ikustera etorri gara gehienbat"

Bilbotik etorri ziren azokara Javi eta Saioa. Laster ezkontzekoak dira eta prestaketa lanetan murgilduta dabilta. "Ezkontza antolatzea ez da zaila baina bai gogorra". Ezkongaiak bi amekin etorri ziren azokara. Esan zigutenez oso lagungarri izan zituzten hainbat erabaki hartzerakoan.



TRINI |
SALTZAILEA

"Oso gustura gelditu naiz lehen azoka honekin"

Lan handia izan du Bergarako Sastreria Mujika dendako arduradunak azoka prestatzen. "Jende asko hurbildu da eta merezi izan du. Errepikatzen moduko esperientzia izan da".



VICENTE, EVA, OIER ETA M^a JOSE | MODELOAK

"Gure lehenengo esperientzia izan da ibiltokiaren gainean eta gustura ibili gara jendarean"

Ez dira modelo profesionalak baina grazia handiz erakutsi zituzten pasarela gainean hainbat soineko eta jantzi. Bi desfile egin zituzten, bata goizean eta bestea arratsaldean. "Gustura ibili gara ibiltokian. Jende asko etorri da eta urduri egon gara hasieran baina lehenengo uneetako kontua da hori. Publiko artean aurpegi ezagun asko ikusi dugu".

• EZKONGAIEN AZOKAN IKUSITAKOAK



HOGEI ERAKUSMAHAI. Ezkontzen antolaketan profesionalak diren 20 erakusleak osatu zuten Mendigoia hoteleko ezkontzen azoka. Bikote ezkongaien galderak erantzun zituzten baita deskontu bereziak eskaini ere.



PROFESIONALAK LANEAN. Profesionalak lanean ikusteko aukera ere izan zen Mendigoia hoteleko ezkontzen azokan. Askok izan ziren ile-apaintzaile eta makillatzaileen eskuetan gustura asko jarri zirenak.



AMAREN AHOLKUAK. Bikote asko hurbildu ziren ezkontzen azokara baina baita aholkulari asko ere. Ezkongaiak aholkuak behar izaten dituzte eta horrelakoetan amarenak izaten dira fundamentuzkoenak.



JOSETXO ARANTZABAL

Asteburuetan 12 lagunendako lekua eskaintzen du psikogeriatria zerbitzuak.

Psikogeriatria zerbitzua zabaldu du Aita Mennik

Hamabi lagunendako zerbitzua izango da eta asteburuetara zabaldu dute, erabiltzaileen eta haien familien eskaerari erantzuteko

M.B.

Arrasateko Aita Menni eguneko zentro psikogeriatrikoak asteburu eta jaiegunetara zabaldu du zerbitzua. Oraingo asteburuan hasi da dagoeneko, eta hamabi laguni egingo die zerbitzu. Ibarreko adineko ezinduei zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz zabaldu du zerbitzua Arrasateko zentroak. Astelehenetik egubakoitzera eskaini izan du zerbitzu hori orain arte, 09:00etatik 18:00etara; aurreantzean, baina, asteburu eta jaiegunetan ere eskainiko du, eta ordutegi bera izango du.

Erabiltzaileek eta haien familiek adierazitako zaintza premiei erantzungo die modu horretan Aita Mennik: asteen barrena 32 plaza eskaintzen ditu eta aste-

buru eta jaiegunetan 12. Aste barruko plazetatik 30 Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutakoak dira, baita asteburuetako 12ak ere.

Aita Menni eguneko zentroak 1997an zabaldu zituen ateak. Debagoieneko adineko ezindu fisiko eta psikikoei dago zuzenduta eta

Mendekotasuna duten nagusiendako Aste Santurako egonaldiak antolatu dituzte; izenematea zabalik dago

eskaintzen dituen zerbitzuak dira: gizarte eta osasun laguntza, psikoestimulazioa eta errehabilitazio funtzionala. Baita mantentze-lan eta garraio zerbitzu egokituak ere. Zabaldu zutenetik 170 erabiltzailetik gora izan ditu.

Bestalde, kalitateko ISO 9001 ziurtagiria jaso du berriki.

ALDI BATEKO EGONALDIAK

Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailak mendekotasuna duten nagusiendako aldi bateko egonaldiak antolatu ditu, eta Debagoienekoek Aita Mennin egin ahal izango dituzte egonaldiok. Bost leku eskaintzen dituzte.

Urteko edozein garaitarako eska daiteke egonaldia. Hala ere, Aste Santurako nahi bada, eskera lehenbailehen egin behar da, nork bere udal gizarte zerbitzu sailean. Udarako eskatzeko, maiatzaren 31 baino lehen egin behar da. Beste edozein garaitarako ez dago mugaegunik. Eguneko 14 edo 22 euroko prezioa du.

MUK martxan du errektore berria aukeratzeko prozesua

Bost urtez Mondragon Unibertsitateko errektorea izan den Inaxio Oliverik ekainean hartuko du erretiroa

A.G.

Mondragon Unibertsitateak abian du Inaxio Oliveri errektore karguan ordezkatuko duen pertsonaren hautaketa prozesua. Eguenean hartu zuen MUKo Errektore Kontseiluak hautaketa prozesua martxan jartzeko erabakia; izan ere, ekainean hartuko du erretiroa Inaxio Oliverik.

Errektore berriarekin eman nahi diote hasiera datorren ikasturteari Mondragon Unibertsitatean. Hori dela eta, ekain amaierarako hautaketa prozesuak amaituta beharko luke. Unibertsitatearen asmoa da denboraldi batez Oliverik eta bere ordezkoak batera lan egiteko aukera izatea, kargu aldaketa ondo lotzeko.



ARTXIBOA

BOST URTEZ ERREKTORE

Inaxio Oliverik bost urte egin ditu MUKo errektore karguan. Unibertsitate gaztea hartu zuen; datorren urtean beteko ditu hamar urte MUK, eta dagoeneko 4.000 ikasle, 22 titulazio eta 15 master hartzen ditu bere baitan.

Oliveri gizon oso aktiboa izan da eta ibilbide profesional zabalekoa. Errektore kargua hartu aurretik Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza sailburua izandakoa da eta lehenago laminazio planta bateko arduradun 40 urtez.

Aurten hasiko dira Debagoienean AHTren trazatua eraikitzen

A.G.

Espainiako Gobernuak esleitu egin ditu Abiadura Handiko Trenaren Arabako zati bat eraikitzen hasteko lanak: Arratzu-Ubarrundia eta Legutiano arteko zatia. Zati horrek 5,2 kilometroko luzera du eta Espainiako Gobernuak eraikiko dituen lehen kilometroak izango dira. Lanok noiz hasiko diren zehaztu ez badute ere, lehenbailehen hasi nahi dituzte.

DEBAGOIENAREN TXANDA

Debagoienean ere aurten hasiko dira abiadura handiko trenaren eraikitze lanak.

Espainiako Sustapen Ministerioak 2006ko lehenengo hila-beteetan hasi nahi ditu Gasteiz-Arrasate-Bergara zatiko lanak. Bigarren fase batean egingo ditu Arrasate-Bergara-Bilbo zatiko lanak. Dena den, urte amaierarako lanok martxan nahi dituztela adierazi dute Madrildik.

Aretz

Plater konbinatuak • Ogitartekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitartekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



TOPAKETAK BERGARAN | EMAKUME INDIGENEN EGOERA AZTERGAI

"Indigena izaerari uko ez egitearren zibilizatu gabeak garela diote askok"

Topaketok aukera eman zuten Amerikako emakume indigenen egoera hurragotik ezagutzeko

Mexikoko bi emakumek emandako lekukotasuna gordina izan zen, baina baita itxaropentsua ere

Larraitz Zeberio

Bergaran egin zuten azken hitzaldia Martha Sanchez eta Felicitas Martinezek. Mexikarrak dira biak eta emakume indigenen egoeraren berri ematera etorri dira Euskal Herrira. Martha amuza da eta Felicitas, berriz, tlapaneca.

Mugen Gainetik gobernuaren kanpoko erakundeak antolatuta Bergarako Udaleko osoko bilkuren aretoan egin zuten hitzaldia, eguean, 30 bat pertsonaren aurrean. Han ziren, besteak beste, Bergarako alkateorde Juan Jose Arrieta eta Gizarte eta Ongizate batzordeburu Arantzazu Amasorrain.

Bi emakumek argi hitz egin zuten. Amerikako herri indigenen egoera larria da. "Soilik Mexikon 62 hizkuntza indigena hitz egiten dira eta jasaten dugun diskriminazioa itzela da. Gure hizkuntza, janzkera eta ohiturak defendatzeagatik gara baztertuak".

EMAKUMEEN ZAILTASUNAK

Datu ofizialen arabera Hego Amerikan 40 milioi indigena bizi dira. "Gehiago gara", azaldu zuen Marthak. "Erroldak ez dira fidagarriak. Agintariak faltsutu egiten dituzte, dirulaguntza eta aurrekontuetan iruzurra egiteko".

Amerikako indigenen egoera larria bada, emakume indigenen egoera are larriago da. "Legea beti da gizonen aldekoa", azaldu zuten bi emakumek, "baina esnatu gara eta lanean dihardugu gure egoera hobetzeko". Osasun zein elikadura arazo larriak dituztela salatu zuten. "Erditzean emakume

Heriotza-tasa altua, nutrizio arazoak eta eskubide urraketak bizi dituzte



Marthak eta Felicitasek euren hizkuntzan egin zuten hitzaldiaren sarrera.

asko hiltzen da: %15. Askok bakkarririk egin behar dute aurrera, senarra atzerrian dutelako. Lurra gizonetzkoena da eta alargunak jabeago eskubide barik gelditzen dira senarra hiltzerakoan". Egoera ez da samurra, baina bi emakumek itxaropentsu agertu ziren.

ESKUBIDEEN DEFENTSA

Emakume indigenen borroka izan zuten hizpide Bergaran Marthak eta Felicitasek. "Iritsi da gure eskubideak defendatzeko garaia eta lanean dihardugu", esan zuten. Hainbat elkartetan antolatuta, herrixketan emaginak prestatzen

hasi dira. Produkzio-prozesuak bultzatzen ari dira, gehienbat nekazaritza arloan. Eta egiten dituzten artisau-lanak erregistratzen ari dira, kopia merkeei aurre egiteko. Azkenaldian, gainera, auzitegi propioa osatu dute eta emakumek ere partehartzen dute.

Guztia prest dago Etxarri-Aranatzen egingo den Gazte Topagunerako, hilaren 14tik 16ra

Debagoienetik autobusak antolatu dituzte Gazte Topagunera; txartelak dagoeneko salgai daude Herriko tabernetan

Jon Berezibar

"Gazteok nahi dugun Euskal Herriaren irudikapen" moduan aurkeztu zuten egubakoitzean Arrasateko gaztetxean aurtengo topagunea. Etxarri-Aranatzen egingo da aurtun jaia, eta antolatzaileek dagoeneko lotu dute eskola eta ikuskizunetz jositako egitaraua. Ibarretik irtengo diren autobusak ere antolatu dituzte. Hilaren 7a arte egongo dira auto-

buserako txartelak salgai, 10 eurotan, Herriko tabernetan. Lau egunerako bonuak aspalditik daude salgai eta gaurtik aurrera egun bakarrerako sarreak ere eskuratu ahal izango dira Irati tabernan, Arrasaten.

FESTA ETA ALDARRIKAPENA

Independentziaren eskaera ardatz hartuta, urtean zehar euskal gazte-mugimenduak landutako gaiak jai giroan jorratuko dira aurtun ere Etxarrin. Horretarako, 11 gune ipini eta herri eskolak, tailerrak, mahai-inguruak eta bestelako ekintzak antolatu dituzte. Horrekin guztiarekin batera, kontzertu eta ikuskizunak ia orduro egongo dira eta jantoki erraldoia eta azokak ere ipiniko dituzte. Apirilaren 14an, egubakoitza, hasi eta domekara arte iraungo du Etxarriko aurtengo Gazte Topaguneari.



Debagoieneko aurkezpena egubakoitzean egin zuten Arrasateko gaztetxean.

Karmen Irizar azkoitiarra izango da aurrerantzean Topaguneko lehendakari

Zapatuan izendatu zuten lehendakari, Topagunearen urteko batzarrean. Joxemari Muxikak euskara elkarteei eskerrak emanek laga du kargua

Monika Belastegi

Topagunea Euskara Elkarten Federazioak urteko batzarra egin zuen zapatuan eta ordutik lehendakari berria du: Karmen Irizar, Azkoitiko Maxixatzen euskara elkarteko lehendakaria, hain justu. Irizarrek Joxemari Muxika ordezkatuko du. Hala, Muxikak sei urte egin ditu karguan, eta urteotan euskara elkarten mugimenduak izandako "izugarriko bilakaera" azpimarratu zuen zapatuan; izan ere, duela sei urte federatutako 58 elkarte zeuden eta gaur egun 84 dira. Azkeneko seien sarrera zapatuko batzarrean onartu zuten. Kopuruz hazi eta sendotu den bezala, "mugimendu honi oinarriko egitura diskurtsoz eta diruz sendotu" behar zaiola gehitu zuen. Bestalde, lehendakari izan den urteotan elkarte federatuen aldetik eta euskara sustatzeko lanean diharduten langileen aldetik




Joxemari Muxika eta Karmen Irizar zapatuan, Abadiñoko batzarren ostean.

jasotako laguntza eskertu zuen Muxikak.

IRIZARREN HELBURUAK

Ilusionatuta eta beldurtuta samar azaldu da Karmen Irizar kargu

berriarekin. Batik bat aurrera begirako bi helburu ditu Topaguneak, haren esanetan: "Euskararen erabilera bultzatzea eta tokiko telebistak, legeak ez dituelako euskarazkoak bermatzen".



JOSETXO ARANTZABAL

Koadrila txiki bat besterik ez zen egon Monterronen.

Ez zuen erantzunik izan litroak edateko deiak

E-postaz zabalduzako hitzordua zapatu gauean zen, Arrasaten, baina lau bat laguneko koadrila bakarrik agertu zen

Asteleheneko Goienkaria

Bilbon eta Gasteizen bezala, asteburu honetarako kale-edan deialdia zabaldu zen Arrasaten. Orain dela aste pare bat egin zuten deialdia SMS eta posta elektronikoko bitartez, baina, hiriburuetan gertatu den moduan, jasotako erantzuna ia hutsaren hurrengo izan da Arrasaten ere.

Arrasateko kasuan Monterron parkean zen egitekoa, baina hiruzpalau laguneko talde batek bakarrik eraman zituen edariak leku hartara. Hartara, erantzunik ez eta inolako isti-

lurik ere ez Arrasateko litroak edateko deialdian.

E-POSTAZ HITZORDUA

Joandako bi asteetan hainbat posta elektronikotako mezu zabaldu dira horren inguruan. Txantxa gogoarekin edo modari eusteko, hasiera baten Gelma lantegi pareko zubi azpian egitekoa zen, baina oraingo asteen deialdia aldatu eta Monterronen egiteko proposatzen zen mezuetan, "horrela auzokoei ez eragozteko". Mezuetan jasotzen zenez, gainera, leku "intimoagoa" ei da parkea.

Labur

Gizonezko bat atxilotu dute Arrasaten, autoetan lapurtzeagatik

Eguen arratsaldean atxilotu zuen Ertzaintzak 39 urteko E.P.P., arrasatearra Araba etorbidean. Atxilotuak lau turismoren sarrailak indarrez ireki eta barrura sartzea lortu zuen lapurtzeko asmotan. Ertzainek Arrasateko Udaltzaingoko agenteekin batera egin zuten atxiloketa. Une hartan, atxilotuari hiru aitzo atzeman zizkioten. Aurretik ere 13 aldiz atxilotu dute E.P.P., hainbat delitu egotzita. Atxilotua Bergarako epaitegiaren esku dago orain.

2006rako egitasmoak

• KULTURA SAILA

Euskarazko kultura sorkuntza eta ekoizpena hedatzeko egitasmoak antolatuko dituzte. Batetik, kultura hedapenerako hainbat egitasmo lantzen dihardu Topaguneak; bestetik, Kultur Errota zirkuituarekin jarraituko dute (formatu txikiko emanaldiak) eta Film Laburren III. Zirkuitua egingo dute aurten.

• HAUR ETA GAZTE SAILAK

Asteburuetan.com egitasmoarekin jarraituko dute. Horren bidez, gazte sortzaile euskaldunek beste gazte batzuei ikastaro eta tailerrak ematen dizkiete Gazte Kultura Zirkuituetan. Horrekin

batera, III. Grafiti Lehiaketa eta Ikus-entzunezkoen II. Rallya antolatuko dituzte.

• HEDABIDE SAILA

Multimedia proiektuak bultzatzeko jardunean, bi egitasmo azpimarra daitezke: euskarazko tokiko telebistak sortzeko sustapen jarduna eta Nafarroako Euskarazko Irratien Sarea indartzeko lana.

• MINTZAPRAKTIKA SAILA

Mintzapraktika egitasmoak asko zabaltzen ari dira eta aurten, lehenengoz, berbalagun eta mintzalagun guztiak elkartzeko I. Mintza Eguna antolatuko dute.



Debagoieneko I. Ezkontza Azokako antolatzaileen eskertza

Laguntza eskertu gura diete:

- Babesleei.
- Kolaboratzaileei.
- Parte-hertzaileei.
- Han izan diren debagoiendar guztiei.

DJ J&T eta Foto Video Zapping

Albiste izango da

BERGARA | IRALA KALEA BARIKUAN LIBRATU BEHAR DA

Erramu Zapatuko feriarako aparkalekuak libre laga behar dira

Datorren zapatuan, apirilak 8, Erramu Zapatuko feria egingo dute Bergaran. Horren haritik, hainbat aparkaleku hutsik laga behar dira ohartarazi du Udaltzaingoak, feriarako postuak jarri ahal izateko. Hori horrela, Irala kalean kenduta egon beharko dute autoek egubakoitzeko 06:00etarako. Ibargarai kalean, Seminario parean, ganadua jarriko dutela eta, zapatuko 06:00etarako kendu beharko dituzte autoak. Gauza bera egin beharko da Ibargarai kalean jarriko dituzten saltokiak jartzeko, Optika Larrañagan hasi eta Egon tabernaraino eta BBVtik Mafreraino.

ARAMAIO | HILAREN 29AN EGINGO DUTE

Bigarren azoka antolatzen liburuak batzen dihardute

Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada liburu azoka antolatzen ari da bigarren urtez. Hori horrela, dei egiten diete herritarrei behar ez dituzten liburuak udaletxera (goizetik) edo liburutegira (arratsalde) eraman ditzaten.

Apirilaren 29an egingo dute azoka, eta ez Liburuaren Egunean, apirilaren 23an. Erabaki horren arrazoia da Liburuaren Eguna Pazko Zapatuan dela eta oraindik ere oportetean izaten dela jende asko. Aurten gutxienez euro bat balioko dute liburuak. Hortik gorako prezioak liburuaren egoeraren arabera jarriko dituzte. Oraindik erabaki gabe duten arren, litekeena da azokan batutako dirua gobernu kanpoko erakunderen bati ematea.

ESKORIATZA | ASTE OSOKO ITXIALDIA IZANGO DA

Bolognako Prozesua salatzen itxialdia egingo dute HUHEZIn

HUHEZIn ikasleek aste osoko itxialdia egingo dute Bolognako prozesuaren kontra egiteko. Ikasle Abertzaleek deitu dute itxialdia eta gaur hasi eta eguenera bitartean egingo dute. Itxialdiaren batera, ekitaldi sorta ere antolatu dute. Gaur, astelehena, elkarretaratzea egingo dute 13:00etan, eta bi hitzaldi ere antolatu dituzte: 16:30ean Paul Nicholonek egingo du berba eta 19:00etan Mikel Sotok, Euskal Herriaren historiaz eta euskal curriculumaz, besteak beste. Bihar, martitzena, 19:00etan, *AHT eta beste azpiegitura erraldoiak* izeneko hitzaldia egingo du Iñaki Antiguadadek. Eguaztenean Martxelo Otamendi etorriko da eta *Estatuak gabeko nazioen etorkizuna Europan* hitzaldia egingo du 11:00etan. Eguenean ekitaldi politikoa egingo dute, 22:00etan, Arrasateko gaztetxean.

DEBAGOIENA | UDAN IZANGO DIRA EGONALDIAK

Euskara ikasleek egonaldia egiteko familia euskaldunak behar dira

Udan euskara ikasten ari den jendea etxean hartzeko familia euskaldunak behar dira. Egonaldia hilabetekoa izango da gutxienez eta epealdi horretan familiako hiru kidek egon beharko dute etxean, gutxienez. Bestalde, familia bizi beharko da biztanleriaren %70 euskalduna den udalerriri edo auzunean eta familiako kide guztien ohiko hizkuntza euskarak izan beharko du. Ikasleak 18 urtetik gorakoak izango dira eta horiek etxean hartzeagatik 600 euro jasoko ditu familiak. Informazio gehiagorako: 943 47 44 47 (Olga) edo www.egonaldiak.net. Apirilaren 25a da izena emateko mugaeguna.

ARRASATE | 19:00ETAN IZANGO DA HITZALDIA

Enpresak eta boluntariotza berbabai eguaztenean Atzegin

Enrique Arnanzek, irabazi asmorik gabeko erakundeetan adituak, hitzaldia egingo du etzi, eguaztena, Atzegiko txolartean (Gureak lantegia), 19:00etan. *Boluntariotza eta enpresa, bateragarriak ala bateraezinak* izeneko hitzaldia egingo du.

Arnanzek dio ahalik eta denbora laburrenean irabazi handiena lortzea helburu duen enpresa eredu dela nagusi gaur egun. Baina enpresa guztiek berdin jokatzen dute? Europako Batasuna erantzukizuna bultzatzen ari da enpresetan, baina zer da hori? Boluntariotza elkarrekin joko horretan parte hartu behar dute?... Horiek eta beste hainbat galdera argituko dituzte hitzaldian.

Hitzorduk

IRAGANA GOGOAN | II. Errepublika eta gerrako errepresioa, erakusketan eta bi hitzalditan

II. Errepublikaren inguruko erakusketak zabalduko dute bihar, martitzena, Oñatiko kultura etxean. Hala ere, antolatzailerak, Ezker Batuak, jakinarazten du oraindik ere herritarrek aukera dutela erakusketarako materiala uzteko, kultura etxean.

Garai hartako memoria historikoa berreskuratzeko beste ekintza bat dago: Eskoriatzan, Ibarraundin, gerra osteko errepresioaren gaineko hitzaldi bana egingo dute Juan Ramon Garai historialariak eta Paco Etxeberria Arantza diko antropologoak. Eguenean izango dira hitzaldiok, 19:00etan. Irudian, gerrako errepresaliatu debagoiendarren argazkiak.



ARETXABALETA |

• **Orain herria, orain bakea proposamenaz berbetan**
Bake proposamen horren gaineko hitzaldia egingo du Aretxabaleako Batasunak hilaren 6an, eguena, Kurtzebarri eskolan, 19:00etan.

ARRASATE |

• **Arrasate Iraunkorra prozesuaz hitzaldia gaur**
Arrasate iraunkorra, etorkizuna aurrez prestatu hitzaldia egingo du Juanjo Gabiñak, Arrasate Iraunkorra prozesuaren dinamizatzaileak, gaur, astelehena, udaletxean, 19:00etan.

• **Bularreko minbizia prebenitzeko gomendioak**
Bularreko minbiziaren prebenzioaren gainean berba egingo du M. Jesus Mitxelena Donostiako Onkologia Institutuko medikuak. Eguenean, hilak 6, izango da, Amaia antzokian, 17:30etan.

• **Profesionalak ez diren zaintzaileen osasunaz**
Zaintzaile ez profesionalaren osasunaren gaineko bi hitzaldi antolatu ditu Eroskiko Kontsumitzailearen Eskolak martitzenerako eta eguazteneako, Monterronen, 16:30etan.

• **Erretiratuek eskualdeko mahai-jokoen finala dute**
Finala Arrasateko Abaroa egoitzan izango da etzi, eguaztena, 16:00etan. Xake, billar, briska, domino, musa lau eta

zortzi erregetara, eta tute finalak jokatuko dituzte, eta Debagoien osoko erretiratuen etxeek parte hartzen dute. Irabazleek garaikurra jasoko dute, eta eskualde arteko txapelketara pasatuko dira.

BERGARA |

• **Seme-alaben nutrizioaren gaineko hitzaldia**
Nutrizioaren gaineko hitzaldia egingo du Mireia Alberdik bihar, martitzena, Mariaren Lagundian, 18:00etan, 12-16 urte bitartekoen aita-amendako.

• **Odola emateko aukera dago etzi, eguaztena**
Odol-ateratzeak egingo dituzte etzi, eguaztena, seminarioko lokaletan, 18:30etan.

• **Nagusiendako gizarte zerbitzuak azalduko dituzte**
Nagusiek eskura dituzten gizarte zerbitzuen gainean hitz egingo dute bihar, martitzena, San Joxepen, 17:00etan.

• **Arantzadi ikastolaren batxilergo eskaintza**
Arantzadi ikastolak batxilergo eskaintza azaltzeko batzar informatiboa deitu du bihar, martitzena, plazako egoitzan, 19:00etan.

• **Erle-produktuen inguruko hitzaldia egingo dute**
Erle-produktuak gure osasunaren onurarako delako hitzaldia egingo du Martxel Aizpuruak, Giez-Berri enpresako arduradunak, etzi, eguaztena, kultura etxean, 19:00etan.

• **Giza ordenagailua-k erakustaldia egingo du**
Jaime Garcia kolonbiarrak, *Giza ordenagailua ezizenaz* ezaguna denak, erakustaldia egingo du eguenean, hilak 6, UNEDen, 19:00etan. Iatargi Astronomia Taldeak antolatzen du. Segidan, eguraldi ona badago, teleskopioak ipiniko dituzte seminarioko patioan, ilargia eta Saturno ikusteko.

ESKORIATZA |

• **Orain herria, orain bakea proposamenaren gainean**
Izen horretako proposamen politikoa agerraraziko die Batasunak herritarrei bihar, martitzena, kultura etxean, 19:30etan.

OÑATI |

• **Txandako erosleendako 500 euroko bonoak**
Gaur, astelehena, hasi eta egubakoitzera arte, Txandako erosleek sari zuzeneko txartelak jasoko dituzte dendetan. Txandako dendetan gastatzeneko 500 euroko sariak emango dituzte.

• **Pake-Lekuk urteko batzar orokorra egingo du**
Pake-Leku erretiratuen elkarrekin urteko batzar orokorra egingo du eguenean, apirilak 6, Santa Anan, 16:30ean lehenengo deialdian eta 17:00etan bigarrenaren. Besteak beste, zuzendaritza batzordea berri-tuko dute.

www.euskoauto.toyota.es

Adimen forma berria.
Ezagut itzazu Yaris autoaren bost teoremak.



Toyota Yaris Berria.

Toyota Yaris Berria. Pentsamendu Adimenduna.



Adimena muturreraino eramanda bakarrik lor dezakegu pentsaezina dena.

Yaris autoaren bost teoremak errealitate bihurtu dira.

- 1 Teorema: Kanpoalde konpaktua = barrualdean leku handiagoa. Easy Flat sistema. 737 litroko edukiera.
- 2 Teorema: Kanpoalde konpaktua = segurtasun handiagoa. EuroNCAP 5 izarrak, MICS sistema eta 9 aire-zaku.
- 3 Teorema: Kanpoalde konpaktua = erosotasun handiagoa. Smart Entry eta Smart Start sistemak.
- 4 Teorema: Potentzia handiagoa = kontsumo txikiagoa. Motorra: 1.4 D-4D diesela 90 ZP. 100 kilometrorra 4,5 l.
- 5 Teorema: Yaris berria = mantentze-lan kostu txikiagoa. 100.000 kilometroko, 4,2 orduko mantentze-lanak.

Toyota Yaris gama (Yaris akaberek: Luna eta Sol): 1.3 WT (87 ZP) eta 1.4 D-4D diesela Common Rail (90 ZP), 5 abiadura transmisioarekin, eskuzkoa eta erabilera askotarikoa.

Prezioa 11.950 €-tik 17.350 €-ra

Yaris berriaren gainean jakin nahi duzuna gure webgunean daukazu: www.euskoauto.toyota.es



TODAY TOMORROW **TOYOTA**



FINANCIAL
SERVICES



Kontzesionarioa

EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85

BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Kaleak zikin txakur kakarekin

Gure Bergarako irakurle batek txistua bidali digu, asteon txakur kakaz beterik aurkitu dituelako Barrenkaleko espaloiak: "Ez da kontu berria, baina eguen honetan gehiegizkoa iruditu zait Barrenkalean ikusitako egoera. Kale kantoi asko txakur pixarekin zikinduak zeuden, sarritan egoten diren modura. Askok, gainera, komertzio atariak ziren. Baina eguenean gehiegizkoa iruditu zitzaidana espaloietan ikusitako txakur kaka arrastoak izan ziren. Ematen zuen, gainera, baten bat kaka arrasto horiek zabaltzen ibilitakoa zela. Bazter guztiak zeuden zikinduak. Txakurrak dituztenei ardura handiagoa eskatuko nieke".

• 'El Florido Pensil' antzezlan gaztelaniaz soilik

Oñatitik heldu zaigu hurrengo txistua: "Antzerkera joan nintzen egubakoitzean, *El Florido Pensil* ikustera. Ez nekien antzerkia gaztelaniaz zenik eta pena hartu nuen horrela ikusi behar izango nuela konturatu nintzenez. Baina pena haserre bihurtu zen Tanntakak antzerki taldeak antzerki horren euskarazko bertsiarik prestatu ez duela jakin nuenean".

• Eroskiren promozio kanpainak

Beste irakurle batek txaloa eta txistua bidali dizkigu, biak batera. "Astean behin egiten dut erosketak eta Arrasateko Maxi Eroskian egiten dut, gainera. Azkenaldian, baina, beti egin behar izaten dut buelta bat baino gehiago erosketak ordaintzeko kuxara. Batzuetan opariak egiten dituzte produktu konkretu batzuk erostearren. Nonbait ez dituzte promozio kartelak ondo irakurtzen, sarritan joan behar izaten dudalako kuxako neskatilak esanda dena bertan utzi eta produktu-oparien bila. Ez naiz ba bakarria izango, ezta?".

Sarean harrapatuta

Alkoholemia-kontrolak herri barruan

Debagoieneko hainbat herritan, Ertzaintzak herri barruan jarri ditu alkoholemia-kontrolak. Aurreko aste bukaeran, adibidez, Oñatin jarri zuten kontrol bat. Gazte askok dute autoa hartu eta herriko tabernetara

joateko ohitura. Herri barruko kontrolen aurka daude batzuk, baina badira begi onez ikusten dituztenak ere. *Goiena.net*-en jarri dute gaiaren gaineko eztabaida. Hemen dituzue bertan jasotako iritzi batzuk.

KONTROLAK BAI, BAINA EZ HERRI BARRUAN

Niri ez zait oso ondo iruditzen. Alkoholemia kontrolak egitearen alde nago baina ez herri barruan. Helburua ez da izan behar bi basoerdi edan dituenari gidabaimena kentzea. Baizik eta mozortuta doanari eta beste bizitza arriskuan uzten duena zigortzea.

Gidaria / www.goiena.net

ERRESPECTUA SORTZEN DUTE KONTROLEK

Ulertzen dut esaten duzuna. Hala ere, nik ez diot zentzurik ikusten herrian bertan kaleraino (tabernako ateraino ez esateagatik) autoz joateari. Gauean, herri barruan alkoholez lepo autoa hartzen dutenak asko dira eta susto galantak gertatu izan dira. Beraz, beldur edota errespetu pixka bat sortzeko ondo iruditzen zaizkit kontrol horiek.

Poteatzailea / www.goiena.net

AUTO-GIDARI ZOROAK OKERRAGOAK DIRA

Ez litzateke kontrolik egon behar, ez herri barruan ez kanpoan. Horrekin ez dut esan nahi mozortuta autoa hartu behar dugunik, bakoitzaren ardura da hori. Argi dagoena da mozortuta errazago izango direla istripuak, baina beti pertsona berdinei gerta-

tzen zaie hori, arduragabeei. Horiek alkohola ez badute edaten ere abiadura handian joaten dira beraien musika topera jarrita eta bi garagardo edaten ditugunok ere jasan behar dugu beraien arduragabekeria.

Nahiago dut mozor arduratsu batekin autoan sartu ura edaten duen zoro batekin baino. Soluzioa? Gidabaimena ematerakoan test psikologiko bat egitea eta alkohola edanda istripua izanez gero kartzelara zuzenean!

Arduratsua / www.goiena.net

OHITURA TXARRA DA HERRIAN GIDATZEA

Niri ondo iruditzen zait. Gazte askok dute ohitura autoarekin edozein lekutara joatekoa, baina herrian bertan parrandara ere. Ez da asko kostatzen autoa etxean uztea eta ezin baduzu eta autoa eraman nahi baduzu, ba ez edan! Edo mozorra pasa eta gero joan etxera.

ino / www.goiena.net

ERDI MOZKORTUTA IBILTZEN DIRA ASKO

Niri oso ondo iruditzen zait alkoholemia kontrolena. Txikitero asko ibiltzen da eta arriskua sortarazten dute. Izan ere, kalera joateko autoa hartzen dute askok eta erdi mozortuta badaude, imajinatu! Geroz eta jende gehiagok dauka autorekin edozein tokitara joateko ohitura, baina ogia erostera ere.

Iker / www.goiena.net


HERRI BARRUAN EZ DA ISTRIPU ASKO EGOTEN

Ez dut gaizki ikusten alkoholemia-kontrolak jartzearen kontua, baina herri barruan jartzea gehiegi dela iruditzen zait. Herri barruan zenbat istripu gertatzen dira bada alkoholak eraginda? Ez dut uste arazo handia denik eta ez nuke kontrolik jarriko.

Pello / www.goiena.net

www.goiena.net

Herri barruan alkoholemia-kontrolak jartzea ondo iruditzen zaizu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Frantzian gogor ari dira Lehen Lan Kontratuaren aurka. Egoera hemen hobea da? Ez dago erantzun bera. Zergatik?



ANTTON MENDIZABAL |
EHU-KO EKONOMIA IRAKASLEA

Etxebizitzaren prezioa, independizatzeko dirulaguntzak, gazteen arteko lehiakortasuna... Hemen egoera askoz ere txarragoa da. Frantzian eztabaida soziala handiagoa da. Diagnostiko soziala egiten dute eta irtenbideak aztertzen dituzte. Ondorioz, gizartearen erantzuna bestelakoa da.



EGOITZ ITURBE |
ELA SINDIKATUA

Gazteen lan egoera, hemen, askoz ere txarragoa da eta ezegonkortasuna handiagoa da. Kontua da gurean agintariak pixkanaka hartu dituztela egoera kaskartu duten neurriak. Baina beti dago muga bat. Ziur nago egoerak okerrera egiten badu hemen ere gizarteak gogor erantzun duela.



JON GARATE |
LAB SINDIKATUA

Neurri horrek jendea adinagatik kaleratzea ahalbidetzen du eta azkenaldian, Frantzian, ez dago giro. Hor kokatu behar dugu jendearen erantzun gogorra. Hemen ere lan ezegonkortasuna handia da. Egia da egunotan, Frantzian, hemen ahaztuta ditugun borroka molde batzuk ikusten ditugula.



JOSE MARIA LARRAÑAGA |
LANBIDE HEZIKETAN TEKNIKARIA

Lanbide heziketa alorrari dagokionez egoera ezberdina da. Ikasleek, hemen, derrigorrezkoa dute praktikak egitea eta aukera handiak dituzte enpresan gelditzeko. Horregatik ez da gurean protesta dinamikarik sortzen. Ez dakidana da batxilergoa egin duen ikasle baten egoera berdina den ala ez.



Egunkarietako harribitziak

ASMA NOLA KONTROLATU IKASTEN

Gipuzkoan 35.000 lagun inguruk du asma; horietatik 8.000 umeak dira. Txikienei irakatsi egin behar zaie gaixotasuna ezagutzen eta krisi uneetan zer egin behar duten. Horrek lagundu egiten die umei gaixotasunari beldurra kentzen. Gipuzkoako mediku eta erizainek irakasle lanetan jarduten dute.

'El Diario Vasco'
2006-04-02



XAKE TAULAN ERRUSIA JAUN ETA JABE


Ikatz XIX. mendeko energia iturria izan zen; petrolio XX.eko izan da eta gas naturala XXI.eko izango da? Goiz da oraindik erantzuteko, adituen ustez; herrialde askok gas naturalaren aldeko apustua egin dute, petrolioarekiko mendekotasunetik askatu nahian. Izan ere, gas naturalaren eskaria petrolioarena baino ia lau bider (%85) azkarrago handitu da 1980a ezkerro. Negozioia

interes ekonomiko-militarrak eta boterea uztartzen dituen xake taula erraldoia da gasaren merkaturia. Ez da diru iturri soila, baliabide naturala nork izan, hark kontrolatuko du eta etorkizuneko energia. Eta beste energia alternatibo batek gasaren eta petrolioaren erregetzarekin amaitu arte, xake taula kontrolatzeko hautagai nagusia Errusia da. Gas erreserba handiena du.

'Berria'
2006-04-02



Tira, tira...



Peli 'Berria' | 2006-IV-02

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

EZ DA FRONTEA

Dialogo bidezko eta bazterterik gabeko gatazkaren konponketarako prozesuak berme bat du atzotik eta agian baita blindajea ere. Eta horren benetako garrantzia denboraren ikuspuntutik baino ezingo da neurtu. Atzo ez zen osatu bloke edo frontierik; atzo, herri batek bere martxari erritmoa jarri besterik ez zuen egin.

Editoriala
2006-04-02

'Noticias de Gipuzkoa'

GIHARRA ERAKUTSI

Euskal gizartearendako une erabakigarrian gaude, baina indar politikoen posizioamendurako ere une erabakigarria da. Atzoko manifestazioaren ondoren, norgehiagoka hasi da ezker abertzalearen espektro soziologikoaren eta EAJren nazionalismo moderatuaren artean. Norghegiagoka hasi besterik ez da egin.

Editoriala
2006-04-02

'El Diario Vasco'

DISOLUZIO GARAIA

ETArri eskatzen zitzaion urratsa eman duela eta, hortaz, orain Estatuari eta gizarteari erantzutea dagokiolako ideia zabaltzen ari da ezker abertzalea. Baina gehiago dago: logika horren arabera ausartzen dira autodeterminazioa eta lurraldetasuna ezinbesteko baldintza gisa ezartzen egoera erabat demokratiko bezala onartzeko.

Editoriala
2006-04-02


'El Mundo'

EAJ ETA BATASUNAREN ARTEKO EBAKIA

Ezker abertzalea kalera atera zen atzo ETAko presoendako amnistia eta autodeterminazioa eskatzeko. Batasunak eta haren sateliteek milaka lagun mobilizatzea lortu zuten protagonismoa eta herriaren laguntza bilatzen duen estrategiarekin. (...) Prozesuak aurrera egin zuten gero hauteskunde-esparruan berarengatik borrokatuko dira EAJ eta Batasuna.

Editoriala
2006-04-02

Zorroztalea



Ardi latxak

Katalunian astoa badaukate, ba guk zergatik ez dugu ateratzen Euskal Herriko adierazgarria? (...) Baina ez dugu nahi ardi latxa Euskal Herriko ikurra izatea, eta gutxiago ikur politikoa; gure adierazgarri bat da, hemengo arraza autoktonoa. Nikolas Segurola Arantzazuko artzainak esaten duen bezala, Euskal Herrian betidanik hiru gauza egon dira: euskara, laia eta ardi latxa.

'Berria' | 2006-04-01

Juan Luis Azkarate

Batzuk, anonimotasunaren bila, SS hizkiak autoko matrikulatik kentzeko irrikan geunden eta, orain, lehengo adierazgarri geografikoaren orde, esanahi gabeko hiru hizki agertzen dira. Ondoa, E urdin bat. Horrela, Madrilan, Jakan edo Valladoliden zaudela, inork ez dizkizu, euskaldunonganako maitasunezko keinu bezala, gurpilak zulatuko.

Beste batzuk, ordea, oso euskalduna den ohitura bati eutsiz, noranahi doazela Jatorrizko Izen-dapena derrigorrez aldiarekin eta ikusgai eraman behar dute. Horregatik, Kataluniako astoa Espainiako zezen suharraren pareko jatorrizkotasunaren adierazgarria asma-tu, diseinatu eta merkaturatu dute Tolosako elkarte bateko kideek: ardi latxa gizajoa, hain zuzen.

Izan zitekeen betizu behia, euskal artzain txakurra edo pottoka zal-

di txiki eta sinpatikoa; Euskal Herrian, nahiz eta lau katu besterik ez bizi, animalia autoktono franko eduki badaukagulako, harro ego-teko moduko animalia propioen ordezkartza polita, bai jauna.

Ez dakit zergatik, orduan, aukuratuko zuten Tolosakoek ardi latxa. Eta jakin badakit sinboloena mundu labainkorra dela; baina nik, egia esan, ez diot ikusten ezaugarri positibo gehiegi ardi latxa honi; munduko beste ardi guztien ezaugarri berberekin lotzen dut nik gure ardi autoktonoa. Iruditzen zait animalia koldarra, beldurtia, korporatiboa, gremiala, aspergarria eta hitz gutxiakoa.


Beraz, adierazgarri honen kontrako argudio asko erabili daitezke baina, batek daki zergatik, arrakastatsua suertatu da eta jada 150.000 pegatina atera dituzte. Pegatina hauen salmentaren bidez batutako dirua, euskal kulturako ekitaldiak bultzatzeko erabiliko dute. Aspergarria eta beldurtia bai, baina, bederen, bihotz onekoa. Eskerrak.

"Badakit sinboloena mundu labainkorra dela; baina nik ez diot ezaugarri positibo gehiegi ikusten ardi latxari"

"Adierazgarri honen kontrako argudio asko erabil daitezke, baina batek daki zergatik arrakasta izan du"

KIROLA

- Bergarako lau gimnasta Euskadiko Txapelketarako sailkatu dira | 17
- Saskibaloian, Mugarri Alkesak 85-65 irabazi dio Viajes Marfil taldeari | 18



Nerea Pedrosak futboleko entrenatzaile izan nahi du. Harekin jardun dugu | 19

PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

ALOÑA MENDI

1-0

TRINTXERPE

Aloña Mendi | Elgarresta, Elgarresta, Idigoras (Garmendia, 84. min.), Garai (Moia, 46. min.), Barrena (Lopez, 46. min.), Aramendi, Sanchez, Igartua, Olalde, Zubia eta Astola.

Trintxerpe | Diez, Berastegi (Auzmendi, 90. min.), Saenz, Gonzalez, Goitisolo (Rodriguez, 72. min.), Marañá, Garcia (Infante, 70. min.), Carrera (Diaz, 77. min.), Gil (Iza, 59. min.), Varela eta Mauleon.

Golak: | 1-0 Iñigo Arregi (30. min.)

Epailea | Billar jauna. Guadix eta Egiguren izan zituen laguntzaile. Ez zuen aparteko lanik izan. Trintxerpeko atezaina kaleratu zuen 45. minutuan.

Bestelakoak | Aloñak etxeko azken partiduetarako egin duen abonu-txartela dela eta, jende asko hurbildu zen atzo Azkoagainera etxeko taldea animatzera.

Bikain

Baloi guztiak borrokatu

Aloñak joko ona egin ez zuen arren, baloi guztiak borrokatu zituen. Horrela, erakutsitako kemenaren ondorioz gola iritsi zen. Beharrezkoak dira 3 puntuak lehian jarraitzeko.

Kaskar

Baloi luzeak

Lehenengo zatia eskasa izan zen jokoari dagokionez. Trintxerpe gogor atera zen garaipena lortzera. Aloñak baloia luzeak jokatu zituen eta ez zuen partidua kontrola hartzerik izan.

Esandakoak

“Hasieran kostatu egin zaigu zelaian lekua hartzea. 2. zatian gogoz eta ilusioz jokatu dugu eta partidua irabazi dugu”.

JON IGARTUA |
ALOÑAKO JOKALARIA

“Baloi luzeak jokatu ditugu eta ez dugu lekua hartzeko denborarik izan. Gola egin duenak irabazi du”.

AITOR ORUETA |
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA



JOSETXO ARANTZABAL

Jon Igartuak baloi guztiak borrokatu zituen atzo Azkoagainen. Falta bidez gola egiteko aukera politak izan zituen oñatiarrak.

FUTBOLA | ALOÑAK EGIN ZUEN PARTIDUKO GOL BAKARRA

Aloñak jokoan behera egin arren ez zuen hutsik egin

Aloñak, beste behin, partidua irabaztea lortu zuen. Garaipena ez zen erraza izan. Izan ere, Trintxerpek gogor borrokatu zuen

Arantzazu Ezkibel

Aloñak ozta-ozta irabazi zion Trintxerperi etxean atzo. Partidua txarra izan zen, batez ere lehenengo zatia. Azkenean, baina, Iñigo Arregik egindako golari esker hiru puntuak etxean geratu ziren eta Aloñak lider jarraitzen du bigarrenari sei puntuko aldea aterata.

ZELAIAN KOKATZEA KOSTA

Trintxerpe partidua irabaztera etorri zen Azkoagainera; hala, bi

aurrelari jarri zituen zelaian eta haiek min handia egin zieten Aloñako atzelariari.

Etxekoek lehenengo aukera garbia 15. minutuan izan zuten. Iker Olalde ezkerreko hegaletik erdiratu eta baloiak zutoina jo zuen. Trintxerpek ere izan zituen bere aukerak markagailuan aurretik jartzeko. Aloñako atzelariaren huts baten ondorioz, Trintxerpeko aurrelaria atezainaren aurrean bakarrik geratu zen, baina Jon Ander Elgarresta bikain aritu zen eta baloia gera-

tea lortu zuen. Lehenengo zatian jokoak ez zuen jabe garbirik izan. Aloñak baloi luzeak jokatu zituen, baina ez zuen jokoaren jabetza izan. Bigarren zatian, Aloñak joko sistema aldatu egin

Iñigo Arregik partiduko gol bakarra egin zuen 75. minutuan

Trintxerpek 10 jokalarirekin bukatu zuen partidua; atezaina kaleratua izan zen

zuen. Horrela, aurrera indar handiagoarekin atera ziren eta aukera batzuk sortu zituzten. Partidua nola zegoen ikusirik, lehen gola egiten zuenak irabaziko zuen partidua, eta horrela gertatu zen. 30. minutuan, Iñigo Arregik Trintxerperen atea zulatzea lortu zuen. Golak indarra eman zien oñatiarrei.

BIGARRENA EGITEKO AUKERA
Aloñak, Roberto Idigorasen bidez, bigarren gola egiteko aukera izan zuen. Hura bakarrik geratu zen atezainaren aurrean, baina ez zen baloia sareetan sartzeko gai izan.

Azkeneko minutuetan, Trintxerpeko atezaina kaleratua izan zen; beraz, Trintxerpek partidua jokalaria bat gutxiagorekin bukatu zuen.

PREFERENTE MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

Gorka Iturbek lortu zuen berdinketaren gola, eta gogotik ospatu zuen.

UDA 3. da sailkapenean, Beriori irabazi ondoren

UDA
3-1
BERIO

UDA | Eriz, Santxez, Erostarbe, Iturbe, Armendariz (Gonzalez, 12. min.), Arenatza, Kotxo (Arrieta, 45. min.), Gartzia (Igartua, 63. min.), Arriaga (Nuñez, 84. min.), Orueña eta Espinosa (Rodríguez, 68. min.).

Berio | Kastor, Olaizola, Lopetegi, Barrio, Oria (Saiz, 81. min.), Gartzia, Astudillo, Ibañeiz, Garmendia (Saiz, 74. min.), Monreal eta Lazkano.

Golak: 0-1, Lazkano (21. min.), 1-1, Iturbe (49. min.), 2-1, Arriaga (78. min.), 3-1, Rodríguez (85. min.).

Epailea: Martin Jauna.

Mireia Bikuña

Lan handia kostatu zuten UDA-ri Berio mendean hartzea. Garaipean, gainera, sailkapeneko hirugarren lekura salto egiteko aukera ematen dio, Ordiziak galdu egin baitzuen.

BERIO AURRETIK

Hasierako minutuetan bi taldeek ez zuten joko garbirik egin. Nahiko galduta ibili ziren zelai erdian. Hala ere, aukerak egon ziren. 8. minutuan Berioek izan zuen lehena eta 19. minutuan UDAk abagunea izan zuen Arriagak egindako errematearekin.

Baina Berio izan zen lehen gola egin zuena: 21. minutuan areaz kanpotik jaurtitako bolea bati

esker hartu zuen aurre markagailuan. UDAk area ertzean falta jaurtiketa izan zuen berdinketa lortzeko. Atsedenean markagailuan ez zegoen aldaketarik: 0-1.

BIGAREN GOLA PENALTIZ

Berehala lortu zuen berdinketaren gola UDA. Eskuinetik erdiratutako baloia sarean sartu zuen Iturbek. Berdinketarekin UDAk hobeto jokatu zuen. Hala, aukera asko izan zituen, baina gola penaltiz lortu zuen: 78. minutuan Arriagak jarri zuen UDA aurretik markagailuan.

Etxeko taldea lasaitu egin zen orduan, eta hirugarren gola ere lortu zuen. Rodríguezek sartu zuen, korner erdiraketa bat errematatuta.

Haizea alde zuela egin zituen Mondrak bi golak

ZESTOA
0-2
MONDRA

Mireia Bikuña

Haizea protagonista izan zen zapatuko partiduan. Lehenengo zatian Zestoak izan zuen haizea alde, baina ez zuen egoera aprobetxatu zelaian nagusitasuna era-

kusteko. Lehenengo zatian bertan, Mondrak kontraerasoan bi aukera izan zituen.

HAIZEA ALDE

Bigarren zatian, berriz, Mondrak alde izan zuen haizea. Eta hori aprobetxatuz goitik behera hartu zuen mendean aurkaria.

Joko ikusgarria ez egin arren, zelaian ondo kokatu ziren jokalariek eta ondorioz golak etorri ziren. Laspiur (60. min.) eta Lopez (77. min.) izan ziren golegileak. Bi golak, gainera, baselina bidez lortu zituzten.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK		SAILKAPENA						
		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
Real Union-Allerru	1-0	67	31	21	6	4	62	33
Zestoa-Mondra	0-2	61	31	19	8	4	66	34
UDA-Berio	3-1	59	31	17	6	8	55	28
Touring-Irun 1902	1-1	56	30	18	10	2	54	37
Pasaia-Anaitasuna	1-1	54	31	15	7	9	59	35
Orioko-Hondarribi	3-3	49	31	12	6	13	57	42
Aloña Medi-Trintxerpe	1-0	48	31	14	11	6	42	41
Idiazabal-Hernani	3-0	47	31	14	12	6	42	42
Beti Gazte-Zarautz	3-3	46	31	13	11	7	40	47
Mutriku-Ordizia	4-3	45	31	12	10	9	42	39
HURRENGOAK		43	30	12	11	7	41	30
Mondra-Allerru		41	31	11	12	8	41	45
Berio-Zestoa		38	31	10	13	8	44	48
Irun 1902-UDA		36	31	10	15	6	40	43
Anaitasuna-Touring		33	31	8	14	9	32	48
Hondarribi-Pasaia		32	31	8	15	8	40	58
Trintxerpe-Orioko		30	31	7	15	9	33	52
Hernani-Aloña Mendi		26	31	5	15	11	39	71
Zarautz-Idiazabal		20	31	3	17	11	34	57
Ordizia-Beti Gazte		20	31	4	19	8	29	66
Mutriku-Real Union								

Lehenengo erregionala

Bergarak 2. postua lortu du, Zumaiakori irabazita

BERGARA
3-2
ZUMAIAKO

Arantzazu Ezkibel

Aurkari zuzena den Zumaiako mendean hartu zuen Bergarak zapatuan Agorrosinen. Hala, sailkapeneko 2. postua eskuratu du talde mahoneroak. Liderra 6 puntura dute orain bergararrek.

PARTIDU LEHIATSUA

Bi taldeak, partidua garrantziaz jabetuta, oso gogotsu zelairatu ziren.

15. minutuan, partidua etxekoen alde jarri zen. Atzetik hasitako jokaldi batean, Aritzek ezkerreko hegalaria sartu zion baloia Enekori, hark erdiratu egin zuen eta Zumaiakoko atezainak egindako hutsaren ondorioz, baloia sareetan sartu zen.

Jokoa bi taldeen artean banatua zegoen. Edozein momentutan etor zitekeen beste golen bat. Hala, 40. minutuan, epaileak Bergararen arean izandako penaltia adie-

razi zuen eta zumaiarrek ez zuten hutsik egin.

ATSEDENALDIRA AURRETIK

Atsedenaldira 0-0 iritsiko zirela ematen zuen arren, 44. minutuan, Davidek penalti bidez Bergara aurreratu zuen. "Atsedenaldira irabazten iristeak indar handia eman digu", esan zigun Josu Zubia Bergarako entrenatzaileak.

Bigarren zatian, berriz, Davidek egindako jokaldi baten ondorioz 3. gola etorri zen. Zumaiak beste gol bat egitea ere lortu zuen, baina ez zuten partidua berdintzerik izan.



JOSETXO ARANTZABAL

Martini egin zituen Bergararen alde izandako penaltia.

• LEHENENGO TERRITORIALA, IGOERA TXAPELKETA

Etxetik kanpoko puntuak ere garrantzitsuak dira

Arrasateko 40 bat lagun egon ziren Gasteizen eskubaloia partidua ikusten



ARTXIBOA

Nestor Callejak bost gol sartu zituen Gasteizeko partiduan: bi penalti puntutik.

EL PILAR

26-29

FORD MUGARRI

El Pilar | Jungitu, Ulibarri, Lopez (3), Martinez (2), Armentia, Fernandez, Labin (1), Ramirez (1), Jimenez (3), Diaz de Arkaia, Saez (2), Ugarte (3), Montoia eta Monreal (1).

Ford Mugarri | Egaña (1), Valle, Eneko, Masip, Gartzia (2), Oier (5), Iker, Lonbide (5), Nestor (5), Joseba, Altzelai (2), Kepa (5) eta Otegi (5).

Golak bost minuturo: 1-0, 3-2, 6-5, 9-7, 9-11, 11-13. Atsedena. 12-17, 14-19, 18-21, 20-25, 22-26, 26-29.

Mireia Bikuña

Ford Mugarrik zapatuan Gasteizen jokatu zuen partidua ez zen eroso izan. Garaipena lortzeko nahiak eraginda, huts asko egin zituzten erasoan. Hala ere, partidua ia osoan aurretik egon zen markagailuan. Puntu garrantzitsuak dira taldeak duen helburua lortzeko.

URDURITASUNA

Oso urduri hasi zuen Ford Mugarrik partidua. Erasoak azkarreki amaitu nahian jaurtiketa txarrak egin zituzten. Defentsako lana ere ez zen oso ona izan. Hala, Gasteizko taldeak hartu zuen aurre markagailuan.

Lehen ordu laurdena bete ondoren, taldea lasaitu egin zen eta partiduko erritmoa ezarri

zuen. Tarte hartan epaileek jokalarari asko kaleratu zituzten eta horrek partidua nahastu zuen.

Hala, atsedendirako 10 minutu falta zirela Ford Mugarrik 0-4ko partziala egin eta markagailuan 11-13koa ezarri zuen.

Atsedendian konpondu beharreko akatsak zeintzuk ziren zehaztu ondoren, defentsa gogortu egin zuten eta kontraerasoen

bidez, lehen bost minutuetan bost goleko errenta lortu zuten: 12-17. Amaiera arte 3-4 goleko errentari eutsi zioten.

ATEZAINAREN LANA

Aipagarria da Egaña atezainak bigarren zatian egindako lana. Lan ona egin zuen, eta gol bat ere sartu zuen geldiketa egin ondoren.

• KOPA TXAPELKETA

Arrasatek galdu egin zuen Urnietan: 28-19

Mireia Bikuña

Ez zuen partidua erraza jokatu domekan Arrasatek Urnietan. Kopa txapelketa bera jokatu arren, bi taldeak maila ezberdinekoak dira. Arrasate 2. territorialeko taldea da eta Urnietako 1. territorialekoa. Eta hori jokoaren erritmoan nabaritu zen.

Partidua hasieratik hartu zuen aurre markagailuan etxeko taldeak. Defentsa gogorra egin zuen Urnietakok.

Galdu arren, baina, gustura geratu ziren entrenatzaileak Arrasatek domekako norgehiagokan egindako lanarekin.

• KOPA TXAPELKETA

Partidua amaiera bikaina egin zuen Bergarak

A. G

“Azkeneko segundoan sartutako golari esker irabazi dugu partidua”, esan zigun Josetxok, Bergarako entrenatzaileak, Tolosan 24-25 irabazi eta gero.

Bergarak partidua txarra jokatu zuen; huts asko egin zituen. Erasoan Tolosako atezainarekin egin zuten topo mahoneroek; hark partidua bikaina jokatu zuen.

Partidua amaitzeko 15 minutu falta zirela 19-11 atzetik zen Bergara. Azken minutuetan, baina, Bergarak 5-14ko partziala egin zuen eta azken segundoan irabaztea lortu zuen Bergarak.

• EUSKADIKO TXAPELKETA, KADETE MAILA

Porrota ligako azken partiduan

VERKOL ALOÑA

15-27

AIALA ZARAUZ

Verkol Aloña | Moreno (2), Aranburu, Maiztegi, Egaña, Nuñez (1), Herrero (5), Gartzia, Mugartza (5), Lopez, Kintas (1), Karmona, Aranburu, Matilla (1) eta Ugarte.

Aiala Zarautz | Martinez, Unamuno (1), Goikoetxea (6), Arregi, Hernandez, Etxabe, Del hoyo (1), Odrizola, Abadia (5), Benitez (3), Arribazala, Mujika (6), Lasa (5) eta Elortza.

Golak bost minuturo: 1-3, 3-5, 4-9, 4-11, 5-12, 8-15. Atsedena. 10-16, 11-19, 11-20, 14-23, 14-25, 15-27.

Mireia Bikuña

Aukera gutxi izan zuen Verkol Aloñak domekako partidua irabazteko. Aiala Zarautz taldea indartsuagoa izan zen.

EZAUGARRI EZBERDINAK

Partidua hasieratik bi taldeen ezaugarriak garbi ikusi ziren. Zarautzek kontraerasoetan golak egiten zituen eta hegalekoen jaurtiketa garbiei esker alde hartu zuten markagailuan.

Verkol Aloñak, berriz, gola egiteko aukera garbiak sortzeko arazo asko izan zituen. Hala, jokaldi askotan pasibo egiteko



JOSETXO ARANTZABAL

Ane Herrero bost gol egin zituen.

arriskuan egon ziren. Bigarren zatian hasieran erakutsitako erreakzioak ez zuten partidua irabazteko balio izan.

Partidua amaitzeko 15 minutu falta zirela epaileak kantxan zeuden zale batzuk egotzi zituen jokalariek iraintzeagatik.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Tecnocasa San Adrian-Verkol Aloña 24-19

IGOERA TXAPELKETA. MUTILAK

El Pilar Marianistas-Ford Mugarri 26-29

KOPA. 1. ETA 2. TERRITORIALA

Elgoibar-Arrikruz Oñatiko Kobak 23-21

Urnietako-Arrasate Eskubaloia 28-19

Amenabar Zarautz-Bergara 24-25

GAZTE MUTILAK

Elgoibar-Aloña Mendi 28-26

Tolosa-Gatz Museoa Jakion 31-34

Amenabar Zarautz-Bergara 26-23

GAZTE NESKAK

Aiala Zarautz-Verkol Aloña 29-26

KADETE MUTILAK

Gatz Museoa Jakion atsedena

Urnobitza Elgoibar-Aloña Mendi 32-23

KADETE NESKAK EUSKADIKO TXAP.

Verkol Aloña-Aiala Zarautz 15-27

• LEHENENGO MAILA. IGOERA TXAPELKETA

Hiru puntuko jaurtiketek erabaki zuten

Etxeko lanak egin zituen zapatuan Mugarri Alkesak; Askartzak huts egin arte partidua irabazten jarraitu behar du Arrasateko taldeak

MUGARRI ALKESA

85-65

VIAJES MARFIL

Mugarri Alkesa | Gamarra (23), Domingo, Mallabiarrena (6), Mikel Biain (8), Barberena (5), Herzog (5), Kintana (11), Hernandez (7), Alartzia (12), Aranburu, Iñigo Biain (8) eta Isasa.

Viajes Marfil | Ruiz, Salaberri (11), Lafuente (3), Ziganda (22), Muñiz, Domeño (2), Bados (4), Bernarte (7), Ibarrola, Gartzia eta Vinagre (16).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 22-15. Bigarren laurdena 39-27. Hirugarren laurdena 54-49. Laugarren laurdena 85-65.

Mireia Bikuña

Partidu amaieran Iturripeko markagailuak erakusten zuen aldea azken laurdenean lortu zuen Mugarri Alkesak. Bigarren laurdenean zuen 13 puntuko aldea galdu egin zuen hirugarrenean. Hala, laugarren laurdenean erabaki zuen norgehiagoka Gorka Zurututzaren

taldeak. Halaber, hiru puntuko jaurtiketek berebiziko garrantzia izan zuten zapatuko partiduan, Mugarri Alkesak hiru puntuko 17 saskiratze egin baitzituen. Viajes Marfilek, gainera, jaurtiketa libre asko huts egin zituen.

HIRUKO JAURTIKETAK

Viajes Marfil izan zen partidu hasierako saskiratzeak egin zituen eta markagailuan aldea hartu zuena. Mugarri Alkesak hasierako puntuak hiruko jaurtiketen bidez lortu zituen. Lehen laurdenaren amaieran etxeko taldea zen nagusi: 22-14.

Bigarren laurdena ere hiru puntuko jaurtiketekin hasi zuten bi taldeek. Hasieran, baina, kosta egin zitzaizen puntuak lortzea. Hala ere, Mugarri Alkesak markagailuan zuen aldea handitzea lortu zuen: 39-26.

ALDEA GALDU ZUTEN

Hirugarren laurdenean bizi izan zituen Mugarri Alkesak unerik zailenak; izan ere, etxeko taldeak huts gehiegi egin zituen erasoan. Viajes Marfil



JOSETXO ARANTZABAL

Iñigo Biainek mate ikusgarria egin zuen zapatuko partiduan.

taldeak, aldiz, hobeto jokatu zuen, eta 3-13ko partziala egin zuen. Partiduko lehen berdinketa ere laurden horretan etorri zen; izan ere, etxeko taldeak 15 puntu bakarrik egin zituen laugarren laurdenean.

Laugarren laurdena hasi aurretik agindu zehatza eman zien Gorka Zurututza entrenatzaileak. "Guk dakigun modura jokatzeko esan digu azken laur-

dena hasi baino lehen", esan zigen Mugarri Alkesako jokalarri Aranburuk.

Eta berriro hiru puntuko jaurtiketei esker markagailuan aldea zabaltzea lortu zuten, Mugarri Alkesak partidu amaieran markagailuak erakusten zuen emaitza lortu arte.

Viajes Marfilek aurretik egingdako esfortzua nabaritu zuen eta behera etorri zen.

• JUNIOR MUTILAK

Lasaoko mutilak erraz nagusitu ziren (16-94)

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendik ezin izan zuen ezer egin Lasaoren aurka zapatuan Zubikoa kiroldegian. Etxeko taldea sailkapeneko azken postuan dago eta Lasao, ordea, bigarren da 17 punturekin.

Oñatiarrak ahalegindu ziren partidu txukuna egiten, baina lehenengo laurdenaren bukaeran 3-17 ziren atzetik. Aurkariak erraz hartu zituen neurria Aloñari eta ez zuten arazorik izan markagailuko aldea handitzeko. Atsedenealdian 6-39 zen aurretik Lasao.

Datorren astean Mugarri Alkesa izango du aurkari Aloñak.

• KADETE MAILA

Kadete mailako derbia Mugarrik irabazi zuen

Arantzazu Ezkibel

Arrasateko mutilak 45-86 nagusitu ziren zapatuan Zubikoa jokaturako derbian. Partidua hasieratik jarri zen arrasatearren alde. Etxekoak, baina, ez ziren kikildu eta gogotsu aritu ziren norgehiagoka guztian.

Laurdenetako emaitzak hauek izan ziren: 8-18, 20-46, 43-66 eta 45-86.

Mugarri Alkesa sailkapeneko 2. postuan da 17 punturekin. Puntu bakarrera du liderra; beraz, arrasatearren helburua 1. postua lortzea da. Sailkapeneko azken postuan Aloña dago.

• NESKEN BIGARREN MAILA

Etxean ez dute zorterik izan

ESKORIATZA

58-69

ALDE ZAHARRA

Eskoriatza | Serrano, Laborda, Gomez (2), Caceres (2), Murillo (17), Usabiaga (5), Soriano (1), Exposito (17), Etxeberria (6), Agirrezabalaga (4) eta Alartzia (4).

Alde Zaharra | Trueba (11), Vazquez (4), Martin (9), Navarro (7), Baza (6), Bermejo (10), Delgado (13), Chavez (8) eta Pinto.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena, 10-18. Bigarren laurdena, 23-35. Hirugarren laurdena, 39-52. Laugarren laurdena, 58-69.

Arantzazu Ezkibel

Hirugarren astez jarraian Eskoriatzak galdu egin du etxean. Javi Corbalen neskek partidu ona egin zuten, baina aurrean zuten taldea ez zen nolanhikoa. Donostiako Alde Zaharra sailkapeneko 2. postuan dago eta zapatuan, Intxaurtxueta, erakutsi zuten zergatik dauden sailkapeneko buruan.

DEFENTSA URDURI

Eskoriatzarrek ondo jokatu zuten, batez ere erasoan. Defentsan, ordea, indarra falta izan zitzaizen. "Defentsan ahul ibili



JOSETXO ARANTZABAL

Carmen, Maite eta Inma donostiarren eraso gelditu nahian.

gara, atzean hobeto jokatzeko gara", esan zigun Javi Corbalek partidu amaieran. Azken laurdenean jaurtiketa libre asko

huts egin zituzten etxeko jokalariek. Hala, markagailua berdintzerik ez zuten izan eta bi puntuk Donostiara ihes egin zuten.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

1. MAILA IGOERA TXAPELKETA

Mugarri Alkesa-Viajes Marfil 85-65

2. TERRITORIALA NESKAK

Eskoriatza-Alde Zaharra 58-69

SENIOR MUTILAK

Plásticos Urteta-Aloña Mendi 60-57

Ametsa-Candy Bergara 80-84

SENIOR NESKAK

Aloña Mendi atsedena

GAZTE MUTILAK

Loyola B-Mugarri Alkesa 28-72

Aloña Mendi-Lasao Altzariak 16-94

STL Azkune-Araneta 35-64

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi-Aldapeta 38-31

Eskoriatza-Zarautz 28-38

KADETE MUTILAK

Aloña Mendi-Mugarri Alkesa 45-86

Lacor BKE-Ordizia 32-71

Eskola kirola

OÑATI

Aste Santuko oporren ondoren txapelketa berriak egingo dituzte

Oñatiko gaztetxoak baloiaren atzetik antxintxika ikustera hurreratu ginen zapatuan

Zubikoa kiroldegian gaztetxoek saskibaloia partiduak jokatu zituzten

Datorren asteko jardunaldiaren ondoren oporrak hartuko dituzte

Geaxi Ezpeleta

Zubikoa, Oñatiko kiroldegira, hurbildu ginen zapatuan, goizean goiz. Ordurako hantxe aurkitu genituen neska-mutikoak partiduak jokatzen. Gaztetxoek saskibaloian jarduten zuten bitartean nagusitxoagoak eskubaloian aritu ziren.

Nagusitan kirolari izan nahi ote duten galdetu genien gaztetxoek. Eta oraindik zer egin nahi duten oso argi ez duten arren, "kirolari izatea ondo legokeela uste dugu", izan zen euren erantzuna. Neskatilek gogoko dute kirolean jardutea, batez ere futbol eta saskibaloian. Eta etorkizunean horretan lan egiteko aukera izaten badute ez dutela galduko ziurtatu ziguten.

OPOR OSTEAN ALDAKETIKIN ITZULIKO DA ESKOLA KIROLA

Datorren astekoa izango da Aste Santuko oporren aurreko azken jardunaldia gaztetxoentzat. Aste batzuetako atsedeen ondoren, neska-mutikoek indarberrituta etorri beharko dute, beste erronka batzuei aurre egiteko. Izan ere, oporretatik bueltan hasiko da Udaberriko Txapelketa.

Nagusienetan, kirol bakoitzaren aurrean gelditu direnak Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko duten bitartean, gaztetxoek taldeak berrantolatu eta txapelketa berriari ekingo diote.



GEAXI EZPELETA

Duru. Iñigo M., Iñigo I., Iker A., Jon, Asier, Gorka, Julen, Mikel eta Iker S. daude argazkian.



GEAXI EZPELETA

Degurixa. Beñat, Jon T., Jon F., Andoni eta Xabik jardun zuten zapatuan taldearen izenean.



GEAXI EZPELETA

Haritza. Leire, Maider, Ainhoa, Irati, Garazi, Izar, Nagore, Olatz, Amaia eta Karla.



GEAXI EZPELETA

Altza. Maialen, Alazne, Nerea, Maider A., Josune, Garazi, Maide U., Miren, Sara, Leire eta Irati.

GAZTETXOEK NAGUSITAN KIROLARI IZAN GURAKO LUKETE



NAGORE | HARITZA

"Nagusitan kirolari ezagun izan gurako nuke; izan ere, futboleko edo saskibaloian jardungo nuke".



IZAR, AMAIA ETA OLATZ | HARITZA

"Oraindik ez dugu pentsatu nagusitan zer egin nahi dugun, baina kirolari izatea ondo legokeela uste dugu. Eta kirolari izatekoan futbolari izango ginateke".



JOSUNE, GARAZI, ALAZNE ETA MAIALEN | ALTZA

"Kirolari profesional izan nahi dugu nagusitan. Futbolari izango ginateke gustura. Eta Josune tenislari ere bai. Gogoko dugu, eta horretaz bizi izateko aukera izanez gero, ederto".



NEREA, ANE, MIREN ETA AINHOA | PAGOA

"Ez dakigu ziur zer izan nahi dugun nagusitan. Baina egia esan, bulego batean lan egin baino hobe kirolean jardutea. Ondo egongo litzateke kirolari izatea".

Iruditan



AGT ARRASATE PILOTA

Gipuzkoako Udaberri Txapelketa. Ibai Bolinaga eta Gorka Jimenez arrasatearrak Gipuzkoako junior 2. mailako txapelkunak dira Mundurrori 22-3 irabazita. Argazkian, Mauri entrenatzailearekin.



JOSETXO ARANTZABAL

Tenisa. Zapatuan hasi zen Debagoieneko Tenis Txapelketa Oñatin. Ibarreko 18 lagunek jardungo dute lehian eta finala uztailean izango da.



JOSETXO ARANTZABAL

Errugbia. Arrasatek 13-10 hartu zuen mendean Zarautz Garagartzan. Partidua gaizki hasi zen arren etxeokentzat (0-10), buelta eman zioten.



JOSETXO ARANTZABAL

Euskadiko Judo Txapelketa. 210 judoka aritu ziren Labegarietan Espainiako Txapelketarako txartela eskuratu nahian. Lan ona egin arren, ibarreko inor ez zen sailkatu Madrildo finalera joateko.



JOSETXO ARANTZABAL

Gimnasia erritmikoa. Eskola arteko Gipuzkoako Txapelketarako txartelak jokoan egon ziren domekan Labegarietan. Jennifer Pinedo, Alaitz Urkiola, Jone Larrañaga, Onintza Legorburu bergararrak eta alebin eta infantil mailetakako taldeak dira Astigarragan jokatu den finalerako sailkatu direnak.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767
zenbakira

Deiaren prezioa:
1,2 € + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

- BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
- BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematean doan da eta Ki jatorria bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren alta ematean doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
- ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
- PERSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK	POLIFOJOAK (SMS 1)	Abestiaren izena (Abeslaria) KODEA
Himnoak Eibar EIBAR Athletic Club BILBAO Osasuna OSASUNA Real REAL	Ezer ez da betiko (Ken7) EZER Gora Herria (Nego Gorriak) GORA Hator Bel-Air (Bide Ertzean) BELAIR Haizea (Ken7) HAIZEA Hegalt egiten (Ihozi) HEGAL Kusi (Daktum/Trenbidea) KUSI Nargia (Ken7) KEN Inpernuen ete joko (Gatibu) INPER Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) JOKIN Kaixo (Uzei) KAIXO Lau Teikatu (Ihozi) LAUTAU Laztana (Laztan) LAZTA Lotuta egon arren (Kokein) LOTUTA Loretxo (Xoxoxu) LOREA Marea Gora (Ihozi) IMAREA Musturrek sartunde (Gatibu) MUSTURREK Nicaragua (Kortatu) NICA No time for love (Hertzainak) NOTIME	Salve (La Polka) SALVE Sari Sari (Kortatu) SARRI Sorginen leizean (Eskoi) SORGIN Txaxo (Zarama) TXATXO1 Txus (La Polka) TXUS
Pop-Rock Aitormena (Hertzainak) AITORMENA Aizkolari (Kortatu) AIZKO Amore amore (Kardesleko benta) AMORE Begiak okertuta (Lin Ton Tsun) BEGIAK Bi Minutero (Hertzainak) BIMINU Dub manifest (Fermín Muguruza) DUB Egunero (Hertzainak) EGUNERO EH Sukarra (EH Sukarra) SUKAR Eos dicen mierda, nosotros amen (La Polka) ELLOS Enamorado de la muerte (RIP) ENAMO Etorikizuna (Esaik) ETORKI	Trikitixa Bexamela ta pastela (Maio ta Iratzi) BEXAMELA Bokespok (Kopa Juntera) BOKESPOK Hik lan eta nik jai (Tapija) HIK Itsas ontzi baten (Kaxano) ITSAS Kupela (Egale eta Larrañaga) KUPELA Mila galdera (Alaitz/Mader) MILAI Nirekin (Gozategi) GOZATEGI Ny Hirahira (Kopa Juntera) HIRA Txanpon baten truke (Alaitz/Mader) TXANPON	Folk Arratsalde honetan (Sorotan Bek) SOROTAN Bai euskarari (Pantzoa) BANI Bakezaleak (Ane Duhalde) BAKE Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) BIZKAIA Eperak (Ane Duhalde) EPERRAK Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) EUSKAL Ez da posible (Piper Oroskua) POSIBLE Furra Furra (Oskorri) FURRA Galziarra noa (Oskorri) GALZIARRA Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) GERNIKA1 Haika Muti (Mikel Laboa) HAIKA Izarren hautsa (Xabier Lete) IZARREN Lepoan hartu ta (Pantzoa/Piñe) LEPOAN Marinelaren zai (Sorotan Bek) MARINE Nere herriko neska ba maite (B.Larburu) NERE Non geratzen den denbora (Mikel Urdangain) NON
		Q1! Ama Euskal Herria (B.Larburu) OIAMA Tirauki (Oskorri) TIRA Txabamabailnabu (Mikel Urdangain) TXATXA Txoria txori (Mikel Laboa) TXORIA Zaindu maite duzun hori (Piper Oroskua) ZAINDU
		Herrikoia Bagare! BAGARE Desde Santurce a Bilbao DESDE Miriñola (Kopa Juntera) JAJA Pintxo-pintxo PINTXO San Simon eta San Judas SAN
		Jaietakoak Artillero dale fuego ARTILLERO Marijalia (Kopa Juntera) JAJA San Fermín FERMIN San Martzialakto alardea SAN MARTZIAL

SOINUAK (2 sms)	LOGOAK (sms1)
Soinu izena KODEA 1,2,3,4...Real! REAL Athletic leup!! IUEP Buztan bertsoa BERTSO Hartu... Aitarren ta semea... AITAREN Hartu... Ansar ANSAR Hartu... Argentinarra ARGEN Hartu... Mexikarra MEXIKO Hartu... Miami MIAMOL Independenzial INDEPEN Irrintzia IRRINTZI Jotake irabazi arte JOTAKE Milazu! (pilota) MILAZU Txalaparta TXALA Txootx TXOTX	LAU1
	LAU3
	NUKLEAR
	LORA
	SORGIN
	ARRANO

MIREIA GALLASTEGI | BERGARARRA, ARANTZABAL LAGUNARTEKO KIDE OHIA

"Athletic ez da jaitsiko, laguntasun handia du-eta"

Xabier Urtzelai

Realak oxigeno ahokada hartu du Malagaren kontura.

Bai, eta eskerrak... Realaren partiduetan asko sufritzen duten horietakoa naiz, eta zapatuan ez nuen sufritu. Realak lehenengo gola egin zuenean ez nuen garai-pena arriskuan ikusi, Malagak ezer gutxi egiteko gaitasuna erakutsi zuen-eta. Behingoagatik erraz irabazi zuen Realak. Ez ahaztu talde txuri-urdinak hainbat partidu galdu dituela modu berean: ondo irabazten joan eta azkenean galdu. 10 puntu galdu ditugu horrela.

Esan iezadazu zein izan zen garai-penaren giltza.

Denboraldian zehar defentsa lanetan motel ibili da taldea, eta atzo, Ansotegik sendotasuna eman zion lerro horri.

Mark Gonzalez gainontzekoen gaitetik dagoela esango nuke.

Bai, teknikoki oso jokalaria ona da, eta zapatuan erakutsi zuen gorputzaldi onean dagoela. Nik, baina, Xabi Prieto azpimarratu gura dut, maila oso ona duelako, eta gurea delako.

Realekoa izanda ere, esango nuke atzo Athletic animatu zenuela.

Ezta pentsatu ere! Derbiaren ostean Joseba Etxebarriak esan zuen Athleticek mailari eusten dion bitartean ez zaiola axola nor jaisten den. Neuk ere gauza bera esango dut. Badakit Athletic ez dela jaitsiko, laguntasun handiak ditu-eta. Jaitsiko balira, baina, umilago izaten ikasteko balioko lieke.

Madriren kontra, Bartzelonak bar-katu egin zuen?



Julen jaio zenean utzi zion Mireiak Realeko bazkide izateari.

Ez dut uste, ez du barkatzeko beharrik, puntu mordoko alde dute-eta. Nik uste dut Txapeldunen Ligan daukatela burua. **Getafek erakutsi dio Osasunari Europan egon gura dena ezin daitkeela erlaxatu.**

"Nik, baina, Xabi Prieto azpimarratu gura dut, gurea delako"

Espainiako Ligan, Bartzelona da erlaxa daitekeen bakarra. **Kopa Txapelketako finala jokatuko dute laster Zaragozak eta Espanyolek. Behingoagatik, Zaragozaren alde?**

Agustin Arantzabal dagoelako, bai. Gurako nuke titulua irabaztea, ea pozik erretiratzeko. **Ligara itzulita, ezin amaitu Bigarren Mailara nortzuk jaitsiko diren galdetu barik.**

Atzetik aurrera hasita, Malaga eta Cadiz jaitsiko direla nahiko argi daukat. Gero, bi puntu-eren bueltan talde mordoa daude.

Harmailatik

Chamartinen zergatik ez?



Xabier Urtzelai

Estututa. Badirudi Bigarren Mailara jaisten denari saria emango diotela, geroago eta talde gehiago daude-eta meritu hori irabazteko lehian. Albiste ona da Rearendako, eta baita gainontzeko euskal taldeendako ere. Jardunaldiek aurrera egiten duten neurrian, eta zulo beltza geroago eta gertuago dagoen horretan, baina, bada diskurtsoa aldatzeko garaia. Joseba Etxebarriak esan du berari Athletic bakarrik axola zaiola, besteak bost. Mireia Gallastegik ere beste horrenbeste bota du, eta iritsi da idazten dabilenaren ordua ere. Hemendik aurrera belauntzi bakoitzak heldu diezaiola bere mastari: euskal taldeena ondo dago, baina Real lehenengo.

Toledora. Malagari irabazteko Murtzian igaro du Realak astea. Eta, Real Madriren kontrako norgehiagoka

prestatzeko zergatik ez Toledora joan? Akaso, kontrarioaren ondoan entrenatzean egongo da gakoia. Bromak alde batera utzita, gutxi uste dute Real Chamartingo zelaian etekina eskuratzeko gauza dela. Eta zergatik ez? Gauza bat dago argi: gutxi dago galtzeko, eta dena irabazteko.

Mark Gonzalez. Lesio batetik errekerperatzen zegoela etorri zen Realera, eta hasieran 20 minutu jokatzeko ere ez zen gauza. Orain, Realean beste izar batzuk itzalita daudenean, txiletarrak ematen du argia. Bagenekien azkarra zela, eta baita teknikoki jokalaria osoa ere. Onena ez da, baina, hori. Gutxi daude Mark Gonzalezek baloia galdu eta berriro ere errekerperatzeke egiten duen ahalegina egiten dutenak. Jokaldi horiek ez dira telebistako laburpenetan azaltzen, baina konpromisoa erakusten dute.



Itxaropenaren garaipena

Galduz gero, jendeak Bigarren Mailan ikusten zuen Realak. Baina, Bakeroren mutilek irabazi egin dute, eta hori izan da jardunaldiak eman duen berri pozgarriena.



Roberto Carlos

Epailaren eta marrazainaren gainean galantak esatea libre da, eta osasuntsua, seguruena. Baina, gutxienez, ez zaitzabela entzun... Carlitosek aspaldian dena egiten du aldrebes.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK	
Betis-Sevilla	2-1
Osasuna-Getafe	0-4
Mallorca-Espanyol	0-0
Alaves-Athletic	0-0
Deportivo-Racing	2-0
Valentzia-Cadiz	5-3
Athletic-Celta	0-3
Reala-Malaga	3-0
Zaragoza-Vila-real	0-1
Bartzelona-R.Madril	1-1

HURRENGOAK	
Malaga-Getafe	
Cadiz-Betis	
R.Madril-Reala	
Celta-Valentzia	
Espanyol-Athletic	
Athletic-Mallorca	
Alaves-Osasuna	
Racing-Bartzelona	
Sevilla-Zaragoza	
Vila-real-Deportivo	

SAILKAPENA							
	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	69	31	21	4	6	70	27
2. R.Madril	58	31	17	7	7	56	28
3. Valentzia	56	31	5	5	11	44	28
4. Osasuna	55	31	17	10	4	41	37
5. Sevilla	51	31	15	10	6	39	32
6. Celta	51	31	16	12	3	34	29
7. Deportivo	49	31	14	10	7	42	37
8. Vila-real	48	31	12	7	12	41	30
9. Atletico	43	31	11	10	10	40	32
10. Getafe	43	31	12	12	7	44	40
11. Zaragoza	41	31	9	8	14	39	39
12. Betis	36	31	9	13	9	29	41
13. Athletic	34	31	8	13	10	32	38
14. Racing	33	31	7	12	12	26	35
15. Espanyol	33	31	8	14	9	30	46
16. Alaves	32	31	7	13	11	31	45
17. Mallorca	32	31	7	13	11	29	45
18. Reala	31	31	9	18	4	39	57
19. Cadiz	27	31	6	16	9	24	43
20. Malaga	23	31	5	18	8	30	51



KINIELA	
1. Valentzia-Cadiz	1
2. Betis-Sevilla	1
3. Zaragoza-Vila-real	2
4. Deportivo-Racing	1
5. Reala-Malaga	1
6. Alaves-Athletic	X
7. Mallorca-Espanyol	X
8. Athletic-Celta	2
9. Osasuna-Getafe	2
10. Levante-Almeria	2
11. Tenerife-Murtzia Hiria	2
12. Sporting-Hercules	X
13. Valladolid-Xerez	1
14. Lleida-Albacete	1
15. Bartzelona-R.Madril	X

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Nerea Pedrosa oñatiarra futbol entrenatzaile titulua ateratzen dabil Gasteizen, urria ezker. Ekainean bukatuko da kurtsoa, eta orduan, junior maila arteko

talde guztiak entrenatuko ahal izango ditu. Bere gelakideen artean Alaveseko Bonano jokalaria dago. Esan digunez, gelakideen artean beste bat gehiago da; inork ez omen

du gaizki hartu emakumea izateagatik. Futbola batik bat gizonezkoen kirola den arren, Nerea prest dago aurrera egin eta oztopo guztiak gainditzeko.

NEREA PEDROSA | FUTBOL ENTRENATZAILE TITULUA ATERATZEN DABIL

"Superligako talde bat entrenatzea gauza handia izango litzateke"

Arantzazu Ezkibel

Noiz piztu zitzaizun futbolerako zaletasuna?

Futbola beti gustatu izan zait, baina beste kirol batzuk ere egin izan ditut: mendia eta txirrindularitza, esate baterako. Orain hiru urte, futboleko jokatu behar nuela sartu zitzaidan buruan eta horrela hasi nintzen. Garai hartan, Aloñak ez zuen nesken talderik eta, hori dela eta, Arrasatera etorri nintzen.

Entrenatzaile izatearena beste kontu bat da. Taldekide batek animatu ninduen kurtsoan izena ematera. Hasierea batean biok hasi behar genuen, baina azkenean, nik bakarrik jarraitu dut aurrera. Aipatu behar dut Mondrako zuzendaritzak asko lagundu didala pauso hau emateko orduan. Federazioko tramiteak eurek egin dizkirate eta ekonomikoki ere lagundu didate.

Ze gai lantzen duzue ikastaro hautetan?

Orain arte teoria eman dugu: psikologia, pedagogia, joko arauak, etab. Hemendik aurrera, alde fisikoa lantzen hasiko gara. Hasierea batean, klase teorikoak hartuko ditugu eta gero ariketa praktikoak egingo ditugu talde ezberdinetan.

Zer moduz konpontzen zara gelakideekin?

Oso ondo. Adin askotariko jendea gaude ikastaroan; 50 urteko gizonezko bat da nagusia eta uste dut ni naizela gazteena. Bat gehiago naiz ikaskideen artean, ez dute inongo bereizketarik egiten neska izateagatik.

Hala ere, bada harrituta geratu denik ni han ikusita. Galdera asko egin didate, baina guztiek ondo hartu naute.

Talde bat zuzentzeko orduan, gizonezkoen eta emakumezkoen artean ze ezberdintasun egon daitezke?

Nik uste dut alde handia dagoela. Egia esan, nik ez dut inoiz emakume entrenatzailerik izan.

Baina mutilak beti izan dira handizaleagoak, samurragoa da haiek zirikatzea. Neskok, berriz, beste era batera ikusten dugu kirola. Nik uste dut samurrago ulertzen ditugula egoera pertsonalak. Hori da, behintzat, niri entrenatzaile bezala egitea gus-tatuko litzaidakeena.

Futbolaria zarela kontuan hartuz, non jaso dituzu zango-traba gehiago, zelaian edo kanpoan?

Askorik ez dut jokatzeko, beraz, nik zelaitik kanpo ostiko gehiago jaso ditut.

Egia esan, zelaitik kanpo traba gehiago izan ditut, bereziki orain urte batzuk. Orain emakumeen futbola gora doan kirola da, baina lehenago, futbola mutilen kontuan zen. Beraz, futboleko jokatu nahi nuela esan nuenean hainbat arazo izan nituen.

Entrenatzaile batek psikologo lanak egin behar izaten ditu?

Bai, dudarik gabe. Ikastaroan psikologia klaseak hartu ditugu; beraz, oso garrantzitsua da arlo hori.

Entrenatzaile batek ez du bakarrik jokoa zuzendu behar. Jokalariekin berba egin behar du entrenatzaileak, eta ez bakarrik entrenatzaileak, jokalariek ere euren artean berba egin behar dute.

"Bada harrituta geratu den jendea neska batek entrenatzaile izan nahi duelako"

"Mutilak handizaleagoak dira; neskok beste modu batean bizi dugu kirola"



Nereak futboleko jokatzeari uzten dionean nesken talde bat hartu gura du.

Futboleko hasi berria den haur bati nola eragiten dio lehenengo entrenatzaileak?

Entrenatzailea baino zerbait gehiago den figura bat bezala ikusten zaituzte haurrek. Euren zango garrantzitsua da entrenatzaileak esaten duena.

"Entrenatzaile batek jokalariekin berba egin behar du; hori oso garrantzitsua da"

"Ez da justua talde bat gaizki ari denean entrenatzailea kaleratzea"

Entrenatzailearen helburu nagusia haurrek ondo pasatzea izan behar du. Diziiplina ere erakutsi behar zaie: entrenamenduetara joan, partiduetara joan, ordutegia errespetatu, etab.

Ze talde zuzendu gurako zenuke? Superligako (emakumeen liga) talde bat zuzentzea oso polita izango litzateke.

Baina nire helburua ez da hori. Gura dudana da emakumeen talde bat zuzendu. Izan ere, beti izan dut hori buruan, mutilen talde batean aritzea baino nesken talde batean aritzea nahiago dut.

Ezagutzen al duzu neska entrenatzailerik?

Bai, badaude. Ibarrean badaugu Arrasateko neska bat, Titu, entrenatzailea dena. Orain arte Mondrako neskak eta junior mailako mutilak entrenatu izan ditu hark.

Mutrikun eta Zumaian ere badaude neska entrenatzaileak.

Lehenengo mailako entrenatzaile titulua duen neska bakarra ezagutzen dut. Orain, Añorgako jokalaria ohi bat ere badabil ikastaroa egiten lehenengo mailako entrenatzaile izateko.

Futbol talde bat gaizki doanean entrenatzailea bota ohi dute. Justua dela uste duzu?

Ez da justua. Talde batean erantzukizuna guztiek daukate: jokalariek, entrenatzaileak, zuzendaritzak...

Taldea lan ona egiten ari denean, jokalaria oso onak direla esaten da eta ez da inor entrenatzaileaz gogoratzen. Gaizki doanean, berriz, entrenatzailea da kaltetua.

Entrenatzaile jakin bat miresten duzu?

Ni Bartzelona-zalea naiz, beraz, Rijkaard asko gustatzen zait. Baita ere, nola ez, Johan Cruyff. Talde batek jokatzeko duen eragatik entrenatzailea nolakoa den jakin dezakegu.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- 400 bat ume aritu ziren sahararren alde zapatuan ibarreko eskolen arteko abesbatzen topaketan | 24
- Zapatuan hasi eta hilabete osoan ekitaldi ugari egongo dira Bergaran Apirilean Musika egitarauan | 25

Arrasate Musikaleko zuzendari Marta Izagirrekin musika eskolez aritu gara | 26

GARY LOURIS ETA KRAIG JARRET JOHNSON



JOSETXO ARANTZABAL

Kalitatea eta abesti borobilak izan ziren zapatuko kontzertuaren ikurrak.

'COUNTRY-ROCK'-A | KONTZERTU AKUSTIKOA EGIN ZUTEN THE JAYHAWKS BANDAREN BI KIDEK OÑATIN

'Indie' musika iparramerikarraren bi 'ipurterreek' ez zuten huts egin Oñatin

Gitarra akustikoak dakarren biluztasunarekin, musikarien talentua nahikoa izan zen gau berezia dotore janzteko. Ikusleek ere ondo preziatu zuten kontzertuaren kalitatea

Jon Berezibar

Gary Lourisen neurriko musikari batek nahikoa ditu gitarra akustiko bat eta lauzpabost abesti, ikusleen arreta bereganatu eta ingurukoak txunditzeko. Zapatuan Oñatiko gaztelekuan egindako emanaldian, jarraitzaileak artista bikaina dela baieztatu ahal izan zuten, eta The Jayhawks banda izenez bakarrik ezagutzen zutenek ulertu ahal izan zuten zergatik deitu ohi izan zaien "munduko bandarik ezezagunen onena".

Izan ere, berekin batera, The Jayhawksen beste ezinbesteko zutabe bat eroan zuen Oñatira: Kraig Jarret Johnson taldeki-dea. Bildukin akustikoarekin,

euren ibilbide apartekoari gainbegiratu egin zioten. Abesti gertukoak eta garbiak aurkeztu zituzten. Gainera, zapatukoan ere ezin izan zuten folk haizeetatik hanka egin eta benetan bereziak izan ziren alderdi *country*-enetara egindako hurbilketak.

Jator eta ikusleengandik gertu, asko bizi eta ikusitakoak dira bi musikariak, eta oholtza gainean egoten dakite, *riff* eta banda zaratzatsuen beharrik gabe. Gitarra bana aldean, musikari batek erakutsi beharrekoa biluztasun horrekin frogatu behar duela garbi utzi zuten. Maila benetan handiko emanaldia izan zen eta, aspaldiko partez, ikusleen erantzuna aipagarria izan zen zapatuan gaztelekuan. Bi

musikari horiek, agian, ezezagunak dira ikusle arruntarentzat, baina musikazale askorentzat banda mitikoa izan da The Jayhawks (*indie* amerikarrari

Askok 'munduko talderik ezezagunik onena' deitzen diote taldeari

Bien ibilbide apartekoari gainbegiratu egin zioten zapatuan

dagokionez), eta esperotako maila eman zuten zapatuan. Dohainen erakustaldia lehenengo egitea Kraig Jarret Johnsoni egokitu zitzaion. Gitarra gainean, eta bateriarako zein beste edozein tramankulu jotzeko gai zen musikaria alboan zuela. Ordu erdira ere ez zen iritsi biek egindako beroketa saioa, baina entremes arin eta gustagarria izan zen, iragarpen onak zekartzanak.

Oholtza bero, txalo eta txistuen artean jaitsi zen aldageletatik Gary Louris. Trajea jantzita eta itxura txukunarekin, are paregabeagoa izan zen jarraian etorriko zen emanaldia. Ikusleekin abegikor eta modu jatorrean berehala ekin zion ikurtzat daramaten *country-rock* soinua-

GARY LOURIS ETA KRAIG JARRET JOHNSON

ri. Lan horretan, nola ez, Jarret ez zion hutsik egin eta baxuan dela, gitarrarekin edo ahotsarekin lagunduta, elkarrekin makina bat proiektutan eta baita bakarka izan dituzten arrakastei egin zieten gainbegiratua. Hirugarrena oholta gainean Paco Loco izan zen. Perkusioen arduraz izan zuen, baina teklatuekin eta mota guztietako instrumentu harrigarriekin ere ausartu zen itxura xelebrenko bateria-jotzailea. Alegia, hirukote bitxia osatu zuten, elkarren osagarri izan ziren, eta konplizitate han-

dia erakutsi zuten. Gustura ibili ziren eszenatoki gainean, ikusleak beste ari zirela disfrutatzen ikus zitekeen, oso jator ibili zirenetan emanaldi guztian. Merituak

egin zituzten, beraz, daukaten famarako. Ezin zaie biei talenturik ukatu inondik ere, bai instrumentuei dagokienez eta baita abestiei erreparatuta ere. Saio

borobila egin zuten eta ikusleek ere ondo preziatu zuten hori. Musikariak ere konturatuko ziren, ziurrenik, ikusleak ez zirela kasualitatez gerturatu gaztelekura.

nahiko arin berotu zen giroa. Antza, zale porrokatu asko batu zen gaztelekuan, lehenengo lerroak betetzen Gary eta lagunak babesteko prest. Hura ikusita, musikariek ere zeukatena eman eta giro benetan berezia sortu zen. Kritikak laudorioak besterik ez du izaten eurentzat, baina oraindik ere ezezagunak dira ikusle askorentzat. Agian hori da eurek gura dutena, ezagunak izateak ez dakar-eta lan hobeak egitea, eta haiek dagoeneko badaukate euren lekutxo gaur egungo musikan euren estilooan.


Dotore eta ikusleekin abegikor, ondo merezia daukate gainean duten jator ospe hori

Aspaldian gaztelekuan egin den kontzerturik animatuetakoa izan zen zapatukoa

ZALEAK GUSTURA

Kontzertuaren kalitatea zalan-tzaezina izan zela argi dago, eta, era berean, poztekoa da izan zuen erantzuna. Aretoa lehertzeraino bete barik, baina zale mordoxka batu zen gaztelekuan, aspaldi ez bezala. Txaloak ere gero eta beroagoak izan ziren eta

MUSIKARI GAZTEAK BAINA BETERANOAK ALDI BEREAN




'COUNTRY' SUSTRAIAK AZALEAN. Aldi bereko hamaika proiektutan sartuta ibiltzen bada ere, Gary Lourisek guztietarako ardatz bat du, bere ikur eta norabidea ere badena: *country*-a. Bere taldekide Kraigekin batera, modu akustiko eta intimoagoan aurkezten ditu abestiak orain, eta *country* susturriak are agerikoagoak egiten ditu gitarra biluziarekin. Joandako hamarkadaren hasieran lortutako lehen arrakastetatik gaur egun klasiko bihurtu diren abestietaraino, Gary Lourisek bere ibilbideko betiko abestien gainbegiratua egin zuen modu akustikoan zapatuan, jarraitzaileen gozamenerako.

LAGUNEKIN BIRAN. Bira akustiko horretarako aspaldiko lagun ezagunak aukeratu ditu Lourik: The Jayhawkseko Kraig Jarret Johnson gitarra eta baxu lanetan eta Paco Loco perkusioan. Gary bezala, *ipurterrea* da Kraig musika kontuei dagokienez, eta The Jayhawks eta Golden Smoke bandetan egindako lan itzelarekin nahikoa ez, eta bakar-kako ibilbideari ekin dio hark ere. Kraig arduratu zen gaua ireki eta Garyrendako ikusleak prestatzeaz. Gitarra akustikoa gainean, bere diskoko hainbat abesti aurkeztu zituen emanaldiaren hasieran, Garyk protagonismoa hartu baino lehen.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin



JOSETXO ARANTZABAL

18 postu jarri dituzte aurtan. Oinarria liburuaren arren, diskoak, DVDak eta bestelakoak ere daude salgai.

Sekula baino liburu azoka handiagoa da aurtengoa

Egubakoitzetik hilaren 9ra arte egongo da zabalik; oraingo asteburuaren balorazio oso positiboa egin dute antolatzaileek

Monika Belastegi

Egubakoitzean zabaldu zuten Arrasaten liburu azoka. Sekula baino postu gehiagorekin zabaldu dute, gainera. 18 daude, tartean Elkar, Tartalo, Oihuka, Abarka, Foru Aldundia eta Ibaizabal argitaletxeak. Ibarreko ordezkariak ere ikusi dugu asteburuan saltokietan. Ibaizabalen, esaterako, Juan Carlos Irizar Oñatiko musikaria egon zen zapatuan.

ANTOLATZAILEAK POZIK ERANTZUNAREKIN

Elkar argitaletxeko Pako Aizpuruak esan zigunez, jende multzo polita gerturatu da azokara eta helburua hori izanik, alegia, liburuak ohiko irakurle ez direnengana hurbiltzea, oso pozik daude.

Hilaren 9ra bitartean egongo da zabalik, egunero, Seber Altube plazan. Gainera, produktu guztiek %10eko beharpena dute.

Azoka datutan

- **NON**
Arrasateko Seber Altube plazan.
- **NOIZ ARTE**
Apirilaren 9ra arte.
Astegunetan, 11:00-14:00 eta 16:30-20:30. Asteburuetan, 11:00-14:00 eta 17:00-19:00.
- **POSTUAK**
18 daude. Liburuak izan arren ardatza, diskoak, DVDak eta jolasak ere badira azokan. Hala, kultura kontzeptua zabaltzea dute helburu.
- **BEHERAPENA**
%10ekoa egiten dute.

'Nu-metala' eta 'stonerra' udaberriko urteurren ospakizunekin hasteko

Bi kontzertu horiekin eman zioten hasiera apirilako 15 urteurren egitarauari zapatuan Arrasateko gaztetxean

Jon Berezibar

Apirilero bezala, Arrasateko gaztetxean prest daude beste urteurren bati ekiteko. Ekintzaz beteta etorri ohi da udaberriko egitaraua eta apirilako lehen zaturako metal gaua antolatuta zuten.

Bizkaitik bi talde izan genituen gurean: Noizean Behin hasiberriak eta Ehiztari beterranoak. Egurra ematen lehenak Noizean Behinekoak izan ziren. Metala oinarri, abesti freskoak eta melodiatsuak aurkeztu zituzten. Disko bakarra daukate kalean eta oso kritika onak jaso ditu debutak. *Nu-metal*-era noizean behineko osteratxoekin, etorkizuna izan dezaketela erakutsi zuten, behintzat.

Ehiztari taldekoak beterranoak dira, baina elkarrekin egin-

dako 11 urte luzeetan disko bakarra kaleratu dute. Orain dela gutxi egin dute hori eta abesti berri horiek aurkeztu zituzten gaztetxean. *Stoner* estiloa jorratzen dute eta argi utzi zuten badutela hardrockaren inguruan zer esan, QOTSA eta Velvet Revolver taldeen ildoan.

UDABERRI OPAROA

Apirilean loratu ohi da ekintzaz Arrasateko gaztetxea eta aurtan 15. urteurrena ospatuko dute gazte batzarrekoek. Datorren astean Kuraia eta Kloakao taldeek kontzertua egingo dute, eta, horrez gain, aurki hasiko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen Gaztetxe Martxa. Hilaren 27an izango dira Oñatin martxakoak, hura izango da eta ibarreko lehen herria ibilbidean.



JOSETXO ARANTZABAL

Euren debut diskoa aurkeztu zuten Ehiztari taldekoek.



ARRASATE MUSIKAL I TXISTU IKASLEEN EMANALDIA ZAPATUAN

Arrasate Musikaleko txistu ikasleek emanaldia egin zuten zapatu eguerdian eskolako areto nagusian. Egindako errepertorioari dagokionez, jotako pieza ia guztiak euskal autoreenak izan ziren. Horrez gain, txistulari bandak ere hartu zuten parte emanaldi berean. Batzuek zein besteek Jagoba Astiazaranen eta Juan Carlos Larreategiren zuzendaritzapean jardun zuten. Eguenean, fliskorno eta tronpeta ikasleek ere egin zuten emanaldia eskolako aretoan. | M.B.



OÑATIKO KANTU TAILERRA I ESTREINAKO SAIOA EGIN ZUEN ZAPATUAN

Oñatiko abeslarien harrobia bete-betean batu zen zapatuan Santa Ana antzokian: kantu tailerrak (5-6 urte bitartekoek osatzen dute), Ganbara Txikitxoak abesbatzak (7-10 urte artekoak batzen ditu) eta Ganbara Txiki abesbatzak (11-15 urte artekoak daude) emanaldia egin zuten. Ganbara Txikitxoak eta Ganbara Txiki abesbatzak eskarmentua dute dagoeneko, taula gainean, baina kantu tailerraren kasuan, zapatukoa izan zen euren lehenengo emanaldia. Lehenengoa izanik ere, emanaldi polita egin zuten txikiak. | M.B.

MUSIKA | UEK ETA ARIMA BELTZA ELGETAKO ESPALOAIA KAFE ANTZOKIAN

Rock sendoa egin zuen UEK taldeak eta blues-rocka, berriz, Arima Beltzak

UEK taldeak zabaldu zuen kontzertua, eta 'Heltzearen diren egunak' disko berriko kantuak aurkeztu zituen

Larraitx Zeberio

Kalean da UEK taldearen laugarren diskoa, *Heltzearen diren egunak*. Hirukotea lan berriaren aurkezpen biran murgilduta dabil eta barikuan Elgetako Espaloia kafe antzokian izan zen. Ordubeteko kontzertua egin zuten, Arima Beltza banda elgoibartarrari lekukoa eman aurretik.

UEK osatzen dute *Keu* Agirretxea gitarrar-jotzaile eta abeslariak (Etsaiak, Fjord), Mikel Arakistain baxu-jotzaileak (Etsaiak, Fjord) eta Jon Gurrutxaga bateriar-jotzaileak (Arima Beltza).

Hiru lagun, beraz, taula gainean, eta rocka ondo eta indartsu joratzeko hiru horiek nahiko direla erakutsi zuten Elgetan. 130 bat lagunuen aurrean egin zuten Elgetako emanaldia. Euskal Herrian kontuan hartzeko rock talde sendoa direla argi utzi zuten, gainera.

UEK-EN ROCK SENDOA

Hasi berria dute UEK taldekoek laugarren diskoaren aurkezpen bira. Entzun genuenez, hard-rocka eta rock melodikoa ekarri ditu lan berriaren hirukoteak. "Kantu sinpleak, baina indartsuak eta zuzenak", *Keu* Agirretxea taldeko liderraren esanetan.

Gustura entzun genuen Espaloian taldearen emanaldia. Kantu berriak aurreko diskoetako abestiek tartekatuta zituzten, gainera. Besteak beste, *Zerrailak*, *Une baten zain*, *Amestu ditzazket*, *Zulo ilunean*, *Ez zidan entzuten*, *Pozoin debekatua*, *Fignuh Hystreld* eta *Eskua sartu nuen* zuzenean entzuteko aukera izan genuen. Zuzeneko txukunean, gainera.

Ikus-entzuleen artean, lehen lerroetan *Keu*, Mikel eta *Gurruren* musika ikasleak ikusi genituen. Izan ere, musika irakasleak dira hirurak, eta hala ezagutu zuten elkar taldea sortu aurretik.



JOSETXO ARANTZABAL

UEK taldeak hilabete darama *Heltzearen diren egunak* diskoko aurkezpen birarekin.

ROCK-AND-BLUESA ARDATZ

Gaueko 12ak aldera iritsi zen Arima Beltza bandaren txanda Espaloian. Ordubete pasatzoko saioa egin zuten haiek ere, eta beste nora-

bide bat hartu zuen emanaldiak. Sei lagunek osatzen dute Arima Beltza, eta hori nabaritu egiten da. Bestalde, Jon Gurrutxagak hartu zuen mikrofonoa eta beste ukitu-

bat eman zion gauari. Taldeak azaroan kaleratutako *Mundurako atea* diskoko kantuak jo zituen, horren gustuko dituzten Led Zeppelin bertsioak ahaztu gabe.

• ARIMA BELTZA



BLUES-ROCKA EUSKARAZ. Elgoibarko banda bere onenean entzuteko aukera izan genuen Elgetan. Seikoteak kontzertu borobila egin zuten, kantu propioak horren gustuko dituen Led Zeppelin taldearen bertsioekin tartekatuta. Taldeak bikain nahasten ditu gitarra beroaldiak armonika intziriekin. Gurrutxaga ere ondo aritu zen mikroan.

JON GURRUTXAGA | ABESLARIA ETA BATERIA-JOTZAILEA

"Pribilegioa da niretzat bi taldeekin aritzea"

L.Z.

Astegunetan musika irakaslea da Jon Gurrutxaga; asteburuetan, baina, ez du atsedetik hartzen eta kontzertuak ditu Arima Beltza eta UEK taldeekin.


Bi taldeekin aritu zara Elgetan.

UEK taldearekin zuzenekoak egiten hasi garenetik egiten ditut horrelakoak. Batera aritzea erabaki genuen, eta, hala, batzuetan lan bikoitza izaten dut.

Horrelakoetan bi ordu pasatxo egiten dituzu eszenatoki gainean. Gogorra da?

Errespetua ematen du. UEK taldearekin hasiberria dugu azken diskoaren aurkezpen bira eta onartu behar dut bi taldeekin batera eman genuen lehenengo kontzertua gogorra egin zitzaidala. Kontzertuak bi ordu irauten du, baina aurretik soinu probak egin behar dira, eta nire kasuan bi taldeekin, gainera. Urduri ere banangoen, UEK taldearen zuzeneko bigarren kontzertua zelako eta gauzak ondo egiten saiatzen garelako. Tentsio puntu hori nabaritu nuen.

Eta noiz zaude zu gusturago, mikroarekin ala bateriaren maki-latxoekin?



Jon Gurrutxaga bi taldeotan dabil.


Hasierako kontzertuak gogorak izan baziren ere, orain gustura hartzen ditut horrelakoak. Txikitatik egin ditut biak eta ezingo nuke bat aukeratu. Niretzat, gainera, pribilegioa da bi esparru horietan aritzea. Eta gau berean, zer esanik ez!



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK - BAINUAK - ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.
Labegarieta Industrialdea BERGARA.
Tel.: 943 76 98 30. Faxes: 943 76 52 44.
www.iparproject.com



ARRASATE | DEBAGOIENENKO ESKOLA ARTEKO ABESBATZEN XIX. TOPAKETA

Uarkape beteta zela abestu zuten ibarreko eskoletako haur-abesbatzek

Jon Berezibar

Guraso, aitaita-amama, senide eta lagunekin Uarkape pilotalekua goraino beteta, aurten ere ibarreko abesbatzarik gazteenek bat egin zuten Arrasaten zapatuan, Arizmendi ikastolak antolatatu ohi duen eskolarteko abes-

batzen topaketan. Guztira 400 neska-mutikotik gora, Haur Hezkuntzatik hasi eta batxilergoraino, Leintzeko, Aramaio, Bergarako eta Oñatiko 11 taldek hartu zuten parte.

Guztia, gainera, helburu bakarrekin egiten dute: umeen artean abesteko zaletasuna

piztea. Aurtengoa XIX. aldia izan da; beraz, zaletasuna, behintzat, badago, horrenbeste urtean topaketei eusteko adina bai, behintzat. Aurten, gainera, joan den astean hil zen Arantxa Gallastegi irakaslearen omenez egin gura izan dute jaialdia. Ibarreko taldeekin batera Gasteizko Olabide

ikastolako abesbatzakoak izan zituzten gonbidatu berezi moduan. Haiek itxi zuten zapatuko jaialdia, pilotalekuko ikusleen txalo zaparradarekin.

SAHARARREKIN BAT

Urtero moduan, aurten ere sarre-ran batutako diruaren zati bat

elkartasun egitasmo batera bideratuko dute Arizmendikoek. Sarrerak hiru euro balio zuen eta diru hori NUBI elkarteari emango diote, haiek Saharako errefuxiatuei emateko. Han izan ziren elkarteko ordezkariak, egindakoa eskertu eta gaztetxoek emandiaz gozatzeko.



JOSE ARANA GUNEA (ESKORIATZA). Arizmendiko txikienek ireki zuten jaialdia. Txintxo-txintxo, Itziar Gurtubai irakaslearen keinuei jarraituta, dantza eta guzti egin zuten Eskoriatzako haurrek *Grease*-ko abestiek.



MESEDEETAKO ANDRA MARI (ARRASATE). Euskal abesti herrikoien sorta prestatu zuten ikastetxeko lehen hezkuntzako neska-mutiko horiek. Guztira 70 abeslari igo ziren taula gainera.



ELKAR HEZI (OÑATI). Txantxikuek abesti benetan eza-gunak aukeratu zituzten topaketarako: Leteren *Xalbadorren heriotzean* eta Urbietaren *Behin betiko*. Miren Balentziaga irakaslea izan zuten zuzendari.



SAN MARTIN (ARAMAIO). Gitarra eta guzti, lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailetakok *Lau teilatu* klasikoa eta *Oh happy day!* ereserkia abestu zituzten. Ikusleek gogoz txalotu zuten aramaioarren saioa.



GAZTELUONDO GUNEA (ARRASATE). Isabel Gallastegi irakaslearen gidaritzapean, Urbietaren *Xaka, xaka pon!* eta *Oui mesie!* abestiak aukeratu zituzten Arizmendiko 40 neska-mutiko horiek.



OLABIDE IKASTOLA (GASTEIZ). Aurtengo gonbidatu bereziak Gasteiztik etorri ziren. Maila handiko abesbatza daukatela erakutsi zuten Olabide ikastolakoek eta abesti japoniar batekin itxi zuten jaialdia.

• ASTETAN ENTSEATU ETA GERO, ZAPATUAN GERTU ZEUKATEN EZTARRIAK IBARREKO KANTARI GAZTEENEK



NAIA, IZAR ETA NEREA | SANTA TERESA GUNEA (ARIZMENDI)

Aldapeko abestia dute gogokoan abesbatzarekin kantatzeko, eta bi hilabetez ibili dira guztia prestatzen. Dena ondo ikasi eta gertatu zuten arren, "nahiko urduri" zeuden Arrasateko hiru neskatza horiek abestera irten baino lehen. Urduritasunak urduritasun, azkenean ondo baino hobeto egin zuten zegokien saioa.



PAULA, ALIZIA ETA MARIA | SAN MARTIN (ARAMAIO)

"Gutxi gorabehera 24 bat lagun etorri gara Aramaiotik eta bi taldetan abestuko dugu, txikiagoek eta guk. Asko entseatu dugu, hilabeteak, eta urduri gaude, baina ondo egingo dugu". Abestien aukeraketan nahiko originalak izan ziren aramaioarrak, eta *Oh happy day!* klasikoari egindako moldaketa gogoz txalotu zuten.



OLATZ, MIKEL ETA LIDE | JOSE ARANA GUNEA (ARIZMENDI)

Asko entseatu eta gero oso formal ibili ziren Eskoriatzako umeak. Topaketa guztiko txikitxoek izan ziren Arizmendikoak, baina nagusiek bezain ondo eutsi zioten eurek ere. "Ez gaude batere urduri, ze oso ondo ikasi ditugu eta abestiak". *Grease* musikaleko kantuak abestu zituzten, koreografia, keinu eta guzti.

GIPUZKOAKO KANTU TXAPELKETA | ZAPATUAN JOKATU ZEN AZKOITIAN

Ibarreko ordezkariak ez dira Euskal Herriko Kantu Txapelketarako sailkatu


Sailkatu ez den arren, Arrasateko taldeak entzuleen txalo zaparrada jaso zuen

Monika Belastegi

Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketaren finala jokatu zen zapatuan Azkoitiko Baztartxo antzokian. Debagoienak ere izan zuen ordezkariarik: Miren Morales, Maialen Linazasoro eta Eneritz Urria arrasatearrek osatutako hirukotea, hain justu. Martxoaren 18an Urretxun egindako saioan lortu zuten finalerako sailkatzea, eta finalera oso gogotsu joan ziren arren, ez dute lehenengo postuetan egoterik lortu eta, ondorioz, ez dira Euskal Herriko Kantu Txapelketarako sailkatu.

SAIO POLIT ETA HUNKIGARRIA EGIN ZUTEN

Sailkatu ez diren arren, Arrasateko hiru gaztetxoek egindako lana polita izan zen. Aretoa lepo zegoen, 350 bat lagun, eta



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Galdu berri duten lagunari eskaini zioten *Ana* izeneko abestia.

entzuleon txalo zaparrada eta animuak jaso zituzten abeslariak. Saioaren hasieran urdurtasun puntua sumatu zitzaizkien, baina berehala egin zioten aurre eta zoriontzeko moduko emanaldia egin zuten.

Ana izeneko kantua abestu zuten. Hitzak taldeko kide Miren

Moralesek egin zituen eta doinuari dagokionez, Mana talde ezagunaren abesti baten bertsioa aukeratu zuten.

Bestalde, hunkigarria izan zen Miren, Maialen eta Eneritz saioa; izan ere, kantua galdutako berri duten lagunari eskaini zioten.

KANTU KONTZERTUA | 'APIRILEAN MUSIKA' BERGARAN

Eskarmentu handiko ikasleak direla erakutsi zuten

Non. Bergarako Zierbetako elizan.
Zenbat jende. Eliza beteta.
Iraupena. Ordubete inguru.

M.B.

Bergarako musika eskolako kantu ikasleek *Apirilean Musika* ekitaldi sortari hasiera eman zioten zapatuan. Hogeitabat kantu ikaslek hartu zuten parte ekitaldian eta askotariko erreperitorioa egin zuten, mailaren ara-

bera antolatuta. 18 urteko ikasleak zeuden tartean, eta baita erretiratuak ere; batzuek denbora laburra daroate eskolak jasotzen, beste batzuek, aldiz, hamar bat urte. Azken horiek, batez ere, duten maila altua erakutsi zuten emanaldian. Entzuleak asebetetzeko moduko saioa izan zen.

Apirilean Musika Bergarako musika eskolak antolatutako egitaraua da eta apirilean barrena 30 musika ekitaldi inguruk osatzen dute. Gaur, esaterako, hari ikasleen emanaldia egongo da.



JOSETXO ARANTZABAL

Irudian Fran Martinez (baxua) eta Argiñe Agirrezal (sopranoa).

Erosi 307* bat

Hila amaitu baino lehen, 11.840 eurotik aurrera duzu, eta
20 hazbeteko LCD telebista
bat opari egingo dizugu, etxean ere disfruta dezazun



* 3 eta 5 atetako berlinak



PEUGEOT

ZIORLA AUTOAK

ARRASATE

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE Tel: 943 77 01 44

GRUPO ETORMOBIL

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak antolatuta, musika eskolen eginkizun pedagogikoa aztertuko dute zenbait adituk Bilboko Euskalduna jauregian apirilaren

6an, 7an eta 8an. Biltzarrak eztabaidarako hiru gai nagusi izango ditu eta horien harira hainbat hitzaldi eta tailer egingo dituzte. Ibarreko musika eskoletako

ordezkariak ere han izango dira. Horietako bat Arrasate Musikaleko Marta Izagirre da. Biltzarrean landuko dutenaz eta ibarreko eskolen egoeraz jardun dugu harekin.

MARTA IZAGIRRE | ARRASATE MUSIKALEKO ZUZENDARIA

"Diziplina da musika eskolak irakaskuntza formalari egin diezaiokeen ekarpena"

Monika Belastegi

Zein eginkizun dute musika eskoletan gizaratean?

Kulturaren eta hezkuntzaren esparru garrantzitsua betetzea. Musika eskoletara ikasleak datoz kultura musikala ezagutzeko eta hura barnertzeko. Ikasle horien eginkizun nagusia ez da musikari profesionala izatera heltzea, musikara hurbiltzea eta ezagupena jasotzea baizik. Nahiz eta ez den baztertzeko gaitasuna duen gerora profesionala egitea.

Musika eskolara etor daiteke ikaslea 4 zein 65 urterekin. Azken finean, ikasleok musikara hurbiltzea, ezagupena jasotzea eta daukaten musikarako grina eta zaletasuna asetzea dugu helburu.

Zaletasuna, baina, nagusiagoengan egongo da umeengan baino.

Bai. Nagusiagoek zaletasuna dute eta hori asebetetzera datoz. Umeen kasuan, berriz, zaletasuna piztea da asmoa.

Biltzarrean musika eskolen eginkizun pedagogikoa ere aztertuko duzue.

Bai. Musika eskoletan egiten dena ez da kultura bakarrik. Musika eskolek betetzen duten funtzio soziala ere garrantzitsua da. Maila pedagogikoan musika irakasten dugu, instrumentua jotzen... Baina funtzio sozialari dagokionez, badute musika eskolek nabarmentzeko gauza bat eta da talde handiak osatzen direla bertan eta herrian kultura esparrua betetzen dutela; hainbat ekintza antolatzen ditugu eta horietako asko eskolatik kanpo egiten dira; hala, jende askoren-gana hurbiltzen gara.

Musika eskolaren funtzioa da irakastea, baina baita ikasitako hori erakustea ere.

Horren adibide ugari ditugu; hainbat emanaldi egiten duzue nork bere herrian. Baina horrez gainera, ibarreko eskola guztiak batu eta elkarrekin ere egiten dituzue emanaldiak.

Bai. Urtean behin ibarreko eskola guztiek emanaldia egiten dugu aldika herri baten. Horrez gain, bi urtean behin Musikaldia egiten dugu Euskal Herriko musika eskola guztiek eta aurrerago esandako funtzio sozialaren haritik, jaialdi horiek guztiak kalean izaten dira, musika eskoletan egiten duguna erakusteko.

Musika ikasteaz gain, zein onura ekar diezazkioke musika ikastekak pertsonari?

Gorputza garatzen laguntzen du. Azken batean, musikarekin garatzen dira sentimenduak, eta ikasleak horiek azalera ditzan saiatzen gara; nor bere buruarekin ondo sentitzea eta elkarlana ere bultzatzen du, eta azkeneko horrekin batera, harremanak egitea eta elkar ezagutzea.

Horrez gain diziplina izaten ere irakasten du musikak. Nork bere kontura lan egitea eskatzen du musikak, eta horrek bizitza ordenatua erotera eramaten zaitu. Balio garrantzitsuez jabetzen laguntzen du.

Musika eskolek irakaskuntza formalari egin diezaiokete ekarpenik?

Bai, eta nagusietako bat diziplinarena da. Azken baten, musika eskola astean behin jasotzen du ikasleak, gainerako lana etxean egin behar du. Hala, gainera-

"Musika eskolek funtzio soziala ere betetzen dute eta hori oso garrantzitsua da"

"Musika eskolek elkarlana bultzatzen dute, eta horrekin batera harremanak egitea"



Marta Izagirrek Arrasateko musika eskolan hartu gintuen.

ko ikasketetan ere antolatzen lagun diezaiokete.

Musikaren eta osasunaren arteko lotura ere landuko duzue biltzarrean.

Ahotsa nola zaindu behar den landuko dugu, instrumentua jotzean hartzen ditugun jarrera

"Debagoiengan kontserbatorioa balego gehiagok egingo luke musika karrera"

"Gorputzaz baliatzen gara musika egiteko; hortaz, ondo zaindu beharra dago"

txarrak nola ekidin... Zaindu beharreko gauza asko dago. Gorputz bakarria daukagu eta musika egiteko ere ondo zaindu beharra dago, horretaz baliatzen gare-lako. Hori horrela, gorputza zaintzeko hainbat ariketa egiten ere jakin egin behar da.

Eta Debagoieneko musika eskolen kasuan, osasuntsu daude?

Uste dut egoera aberatsa dela. Herri bakoitzak bere eskola du, batzuk handiagoak dira eta beste batzuk txikiagoak, hori ere herriaren tamainaren arabera. Hala, handiagoetan, Bergaran eta Arrasaten, esaterako, gauza gehiago egiten dira.

Bestalde, zaletasuna badago.

Bai, ikasle kopuruak erakusten du hori garbi. 1.200 ikasle inguru daude. Arrasateko eskolak, esaterako, ez dio zertan inbidiarik izan hiri bateko eskolari.

Baina ez dira asko musika karrera egiten dutenak.

Urruntasuna da horren arrazoia. Mailari dagokionez, badaude ikasleak karrera egin ahalko luketenak, baina kontserbatorioak oso urruti daude; hiriburuetan. Guk, azken batean, hezkuntza ez arautua eskaintzen dugu eta profesionalki musikara dedikatu nahi izanez gero, derrigorrez joan behar duzu kontserbatoriora. Hori horrela, ikasle batzuek duten maila edo abilezia on hori galdu egiten da azpiegiturarengatik.

Azpiegiturarengatik bakarrik?

Gaitasuna duten ikasleak batzuk animatu egingo liriateke karrera egitera hemen kontserbatorioa egongo balitz. Beste ikasketak batzuekin uztartzen saiatuko ziratekeen, behintzat.

Aztertu duzue ibarrean kontserbatorioa jartzea?

Orain legeak dauden bezala ez. Batetik, ikasle kopuru minimoa behar da eta, bestetik, kostua handia litzateke.

Bergarako jaietako kartela, zapia eta leloa lehiaketa bidez aukeratuko dituzte

Leloa aukeratzeko sariketa aste honetan bakarrik dago zabalik, eta panelak ipini dituzte nahi duen orok leloa botatzeko

Leire Kortabarria

Bergarako Mendekoste jaiak hurbiltzen doaz, eta ordurako material guztia gertu egoteko, hiru lehiaketa deitu dituzte hainbat antolatzailek.

Hala, jaiaren egitarauko azala lehiaketa bidez aukeratu du Udalak, eta apirilaren 28ra arte dago zabalik parte hartzeko epea. 46 x 61 zentimetroko kartel bertikalak eskatzen dituzte, *Pentekoste Jaiak 2006 Bergara* testuarekin. Horrez gain, teknika libre da. Euskarriari dagokionez, DIN-A3 neurriko paperean inprimatuta, kartoizko oinarri baten gainean edo CDan aurkez daitezke.

Kartelak Bergarako kultura etxean entregatu behar dira. Irabazleari 600 euro emango dizkiote.

ZAPIA ETA LELOA

Jardun euskara elkarteak, besetik, mahoizko zapiak ateratu ditu jaietarako, eta zapien agertuko den marrazkia lehiaketa-tera atera dute. Errotalde jauregian aurkeztu behar dira lanak maiatzaren 12a baino lehen. Jarduneko gazte taldeak aukeratu du irabazlea, eta 60 euroko saria emango diote.

Azkenik, jaietako txosna batzordeak ere lehiaketa antolatatu du, lelo lehiaketa, kasu honetan. Zapatura, hilaren 8ra, bitartean dago esaldia aurkezteko modua. Esaldia Arranoan, Pol-Polen edo gaztetxean dauden paneletan idatzi behar da.

Baldintza hauek ipintzen dituzte: jai parte-hartzaileak, herrikoiak, parekideak eta eskaldunak aldarrikatzea. Ez dituzte onartuko materialismoa edo diruzalekeria goraiatzen dituzten esaldiak. Lelo irabazleak toki berezia izango du euskarri komunikatiboetan.

Labur

Gurutze-bidearen gaineko margo erakusketa zabalduko dute gaur

Arrasateko parrokiak antolatuta, Pablo Sanaguano margolari ekuadortarraren Gurutze-bidearen inguruko erakusketa zabalduko dute gaur, astelehena, Harresi aretoan, 18:00etan, eta egilea bera hantxe izango da. Eguazten Santura arte egongo da zabalik.

Gurutze-bideak hamalau pauso dituen arren, Sanaguanok hamasei koadrotan irudikatu du berau. Jesusen Nekaldia abiapuntu moduan hartuta, nekaldi hori Hirugarren Munduko herrialdeen egoera irudikatzen du.

Argazkigintza analogiko eta digital ikastaroa emango dute Bergaran

Argazkigintza analogikoaren eta digitalaren inguruko ikastaroa antolatu du Bergarako Udalak, Pol-Pol elkartearekin batera, eta izenemate epea zabalik dago kultura etxean (943 77 91 59). Maiatzaren 8tik 31ra bitartean izango da, astelehen, martitzen eta eguazten arratsaldetan; guztira, 24 ordu dira. Matrikula 45 euro kostatzen da langileendako, eta 25 ikasleendako eta langabeendako.


Eskola teorikoak diapositiben bidez emango dituzte, eta praktiketarako, norberak bere argazki kamera eraman beharko du.

Euskal Herriko emakumeen gaineko erakusketa Aretxabaletan

Euskal Herriko emakumeak historian zehar egin duen ekarpenaren gaineko erakusketa antolatu du Euskal Herriak Bere Eskola erakundeak. Aretxabaletako udaletxe zaharrea egongo da bisitatzeko aukera gaur, astelehena, hasi eta egubakoitzera bitartean.

Hainbat paneletan, marrazki eta testu bidez, hainbat emakume ezagunen ekarpena gogoratzen da: besteak beste, *Pasionaria*rena edo Elbira Zipitria irakaslearena. Horrez gain, emakumeek arrantzan, nekazaritzan... izan duten eragina azaltzen da.

Hitzorduak



PAULO COELHO IDAZLEAK LIBURUAK SINATUKO DITU OÑATIN |

Idazle brasildarrak bihar, martitzena, bisitatuko du Oñatiko kultura etxea arratsaldeko zazpitan

Paulo Coelho idazle brasildar famatuak Debagoiena bisitatuko du: bihar, martitzena, Oñatiko liburutegian egongo da liburuak sinatzeko, 19:00etan. Euskal Herrian, Gasteiz eta Oñati bakarrik bisitatuko ditu; beraz, jarraitzaileek aukera aparta dute hau idazlea aurrez aurre ezagutzeko.

Oñati bisitatzeko asmoa Paulo Coelho berak agertu zuen. Izan ere, Gasteizen omenaldi bat egingo diote, eta arratsaldean Oñatira etorri nahi du. Hala, Udal Liburutegiak gonbidatu egin du. *El alquimista* edo *El peregrino de Compostela* dira Coelhoren lan ezagun batzuk.

ZINEMA |

- *Memorias de una geisha* filma Arrasaten eta Oñatin Gaur, astelehena, emango dute film hori Oñatiko kultura etxean, 19:30ean, eta Arrasateko Amaia antzokian, 20:30ean.
- *Pink Floyd: The Wall delako* filma emango dute Elgetan Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.
- *El guardaespaldas* filma ikusiko dute Pake-Lekun Oñatiko Pake-Leku egoitzan *El guardaespaldas* filma emango dute etzi, eguaztena, 17:00etan. Itsuendako Audes sistemaren emango dute filma.
- *Sophie Scholl* filma emango dute eguenean Arrasaten Eguenean, hilak 6, emango dute film hori Amaia antzokian, 20:30ean, zineklub saioan. Alemanian, nazismoaren aurkako erresistentzia talde bateko *Sophie Scholl* kidea da protagonista.

MUSIKA |

- In Flames, Sepultura eta Dagoba taldeen kontzertua In Flames taldeak *Come clarity* diskoa aurkeztuko du, eta Sepulturak metal, hardcore, trash, punk eta tribal estiloen uztarketa egingo du. Eguenean, hilak 6, izango da Bergarako Jam aretoan, 19:00etan. Sarrera, 25 euro.

ANTZERKIA |

- *Asto bat hipodromoan* ipuina kontatuko dute Bernardo Atxaga idazlearen *Asto bat hipodromoan* ipuina kontatuko du Goringo antzerki taldeak Arrasaten. Ipuin horren hirugarren emanaldia izango da. Hilaren 6an izango da, Monterrongo haur liburutegian, 18:00etan.

ERAKUSKETAK |

- **Menchu Gal margolariaren erakusketa Aroztegin** Menchu Gal margolari irundarraren lanen erakusketa egongo da Bergarako Aroztegi aretoan apiril bukaeraraino. Parisen eta Madril bizi izan da Gal. Paisaiak, natura hilak eta erretratuak egiten ditu. Orduetgia: astegunetan, 18:30-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:30-21:00; domeketan: 12:00-14:00.
- **Juan Jose Altunaren margolanak Ordizian** Juan Jose Altuna margolari arrasatearraren erakusketa dago Ordiziako kultura etxean apirilaren 28ra arte.
- **Gari Garaialderen surfaren gaineko argazkiak** Gari Garaialde argazkilariak surfaren gaineko argazki erakusketa dauka Elgetako Espaloia antzokia. Bihar, martitzena, da erakusketa ikusteko azken eguna.

- **Xavier Espinet katalanaren erakusketa Aretxabaletan** Xavier Espinet artista katalanaren margolanak eta eskulturak ikusteko aukera dago Aretxabaletan, Iralabarri plazako kultura etxean, egunero apirilaren 12ra bitartean, 18:00etatik 20:00etara.
- **Aitor Sarasketaren margolanak Arrasaten** Aitor Sarasketa eibartar gaztearen lanak daude Arrasateko Arregi markoztatze dendan aste osoan. Dozenaka erakusketa egin ditu Sarasketak Euskal Herrian eta Espainian. Egu-bakoitzera arte egongo da zabalik erakusketa hori.
- **XXI. mendeko euskal idazleen inguruko erakusketa** XXI. mendeko euskal idazle gazteen inguruko erakusketa antolatu dute. Arrasaten, Monterrongo liburutegian egongo da zabalik maiatzaren 5era bitartean.

LEHIAKETAK |

- **Arrantzaren inguruko argazki lehiaketa dago** Arrantzaren gaineko argazki lehiaketa antolatu dute. Lanak Alzu dendan utzi edo *iarrese@hotmail.com* helbidera bidali behar dira. Arrantza-material sari bat emango dute, eta lanekin erakusketa ipiniko dute. Maiatzaren 20a da lanak aurkezteko mugaeguna.

Eguraldia



Dotore hasiko dugu astea, baina goibeltzen joango da barikurako

Eguraldi ederra izango dugu gaur. Haizeak ekialderantz aldatuko du eta horrek zerua garbi mantentzeko modua egingo du. Hego ukitua ere ibiliko denez, tenperatura igo egingo da nabarmen. Egun guztiz atsegina egingo du, mahuka motzean ibiltzeko modukoa. Iluntzean, baina, hodeiak azalduko

dira, eta bihar, martitzena, bes-telakoa izango da eguraldia: euritakoarekin atera beharko dugu kalera, zirimirri egingo du eta. Eguaztenean aldatu egingo du aurpegia eguraldiak eta tarteak hodeiak izango ditugun arren, euririk ez du egingo. Eguen eta egubakoitzean, zaparradak botako ditu.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 3	Azkoaga	Ferrerias, 1 (943 79 15 15)
Martitzena, 4	Azkoaga	Iturriotz, 17 (943 79 79 99)
Eguaztena, 5	Corcuera	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)
Eguena, 6	Irizar	Erguin kalea, 11 (943 79 12 39)
Egubakoitza, 7	Amezua	Santa Marina, 32 (943 79 09 74)

BERGARA

Astelehena, 3	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Martitzena, 4	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Eguaztena, 5	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Eguena, 6	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)
Egubakoitza, 7	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)

OÑATI

Astelehena, 3	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
Martitzena, 4	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
Eguaztena, 5	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Eguena, 6	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Egubakoitza, 7	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)

ARETXABALETA

Astelehena, 3	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Martitzena, 4	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguaztena, 5	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguena, 6	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Egubakoitza, 7	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Laixan / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegia

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 27	1 • 6 • 26 • 34 • 35 • 44
Osagarria: 13 Itzulketa: 1	
Martitzena, 28	5 • 8 • 14 • 17 • 46 • 49
Osagarria: 12 Itzulketa: 5	
Eguaztena, 29	2 • 20 • 23 • 41 • 43 • 47
Osagarria: 3 Itzulketa: 9	
Egubakoitza, 31	5 • 8 • 11 • 16 • 27 • 33
Osagarria: 39 Itzulketa: 4	

ONCE

Astelehena, 27	90.152
Martitzena, 28	58.126
Eguaztena, 29	62.145
Eguena, 30	62.031
Egubakoitza, 31	62.928
Kupoitzarra (022 seriea)	
Domeka 2	84.351
Kupoitzarra (023 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 30	18 • 34 • 38 • 41 • 46 • 47
Osagarria: 12 Itzulketa: 7	
Zapatua, 1	9 • 16 • 22 • 28 • 34 • 37
Osagarria: 6 Itzulketa: 5	
Zapatua, 1 (Saritzarra)	17 • 42 • 48 • 50 • 53
Itzulketa: 1	

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

• **Ikerketa eta euskara.** Juan San Martin Beka 2006. Eibarko Udala. Ikerketa-beka, hizkuntzalaritza eta toponimiari buruzko ikerlanak egiteko. Epea: irailaren 4tik urriaren 13ra.
• **Hizkuntza ikastaroak atzerrian.** Eusko Jaurlaritza. Alemanian, Frantzia, Britainia Handian, Irlandan eta Kanadan, 2006ko udan familietan egonaldiak eta ikastaroak egiteko 625 plaza. Baldintza: 2005-06 ikasturtean bekadun izatea. Epea: apirilak 27.

EKINTZAK |

• **Auzolandegiak eta Euskadiko Gazteak Lankidetzak.** 2006ko udan proiektu hauetan parte hartzeko epea zabalik da dagoeneko: www.gazteukera.net.

IKASTAROAK |

• **Sukaldaritza.** Arrasateko Gazteria Sailak antolatuta. Maiatzaren 3tik 31ra. Epea: plazak bete arte.
• **Urpekaritza.** Ksub eta Arrasateko Udalak antolatuta. Urpekari tituludunaren nazioarteko agiria lortzeko. Epea: apirilak 18.
• **Uretako sorospen ikastaroa.** Uretako Sorospen ikastaroa 2006, Azkoitian. Apirilaren 1etik maiatzaren 7ra bitartean. Zapatu eta domeketan. Epea: plazak bete arte.

LANA |

• **Erizaintzako diplomadunen lan-poltsa.** Arrasateko Udala. Epea: apirilak 6.
• **Iturgin eta arotzen lan poltsa.** Arrasateko Udala. Epea: apirilak 5.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com



Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Bertan salgai

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Jon Pazos
Martxoaren 27an, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Felix Arriaran
Martxoaren 30an, 82 urte. Zorionak Txomin, Oxel eta Karmenen partetik.



ARRASATE
Malen Murgiondo
Apirilaren 5ean, 7 urte. Zorionak! Familiako guztien partetik.



ARRASATE
Ane Arrillaga
Apirilaren 7an, 6 urte. Zorionak eta besarkada handi bat! Familiakoak.



ARRASATE
Igor Urrea
Apirilaren 9an, 7 urte. Zorionak eta besarkada handi bat! Familiakoak.



BERGARA
Markel Barribero
Martxoaren 31n, 4 urte. Musu bat eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Markel Laskurain
Apirilaren 1ean, 5 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki Anek.



BERGARA
Nagore Pelicano
Apirilaren 5ean, 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta bereziki Beñat.



ARETXABAETA
Lierni Irusta
Martxoaren 26an, urtebete. Zorionak eta musu handi bat. Etxekoak.



ARETXABAETA
Nora Ugalde
Apirilaren 1ean, 4 urte. Zorionak! Izeba, osaba eta bereziki, Maitane.



ARETXABAETA
Uxue Balantzategi
Apirilaren 3an, 10 urte. Zorionak eta patxo handi bat maiztia. Etxekoak.



ARETXABAETA
Maialen Garai
Apirilaren 3an, 7 urte. Zorionak eta musu handi bat. Etxekoak.



ARETXABAETA
Jon Ugalde
Apirilaren 19an, 2 urte. Zorionak! Izeba, osaba eta bereziki, Maitane.



ESKORIATZA
Unai Etxebarria
Apirilaren 4an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako. Etxeko guztiak.



ANTZUOLA
Josu Alastui
Apirilaren 7an, 10 urte. Zorionak etxeko partetik eta bereziki, Iratxek.



ELGETA
Izaskun Ojanguren
Martxoaren 29an, urteak. Zorionak eta musu handi bat Lagunak.



ELGETA
Ainara Iribar
Apirilaren 2an, urteak. Zorionak eta musu handi bat. Lagunak.



ELGETA
Josetxo Arantzabal
Apirilaren 3an. Zorionak eta urte askotarako. Lankideak.

Hildakoak

Manuel Simon Nogales
Gasteizen, martxoaren 29an. 55 urte.
Juanita Aranbarri Goñi
Bergaran, martxoaren 30ean. 85 urte.

M^a Carmen Peñagarikano Gisasola
Antzuolan, martxoaren 30ean. 65 urte.
Luis Carlos Urrutia Rodriguez
Bergaran, martxoaren 30ean. 61 urte.

Rosario Fuentes Zaida
Eskoriatzan, martxoaren 31n. 84 urte.
Francisco Juaristi Barrenetxea
Bergaran, apirilaren 1ean. 74 urte.

Jaiotakoak



Nahia Granados Aliende
Bergara • 3,370 Kg. Martxoak 26.
Gurasoak: Gorka (Bergara) eta Arrate (Santurtzi). Argazkian: Nahia aita eta amarekin.



Lander Zabaleta Igartua
Bergara • 3,920 Kg. Martxoak 27.
Gurasoak: Joseba (Bergara) eta Marta (Bergara). Argazkian: Lander aita eta amaren besoetan.



Eider Olabarria Lazkana
Bergara • 3,400 Kg. Martxoak 29.
Gurasoak: Martin (Bergara) eta Jone (Bergara). Argazkian: Eider bapoa eta amarekin.



Ariane Caballero Berrocal
Aretxabaleta • 2,770 Kg. Martxoak 30.
Gurasoak: Raul (Arrasate) eta Marta (Aretxabaleta). Argazkian: Ariane jaioberria aitaren besoetan.


ESKELAK
ASTELEHENKO GOIENKARIAN

85 euro
943 25 05 02

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7

ARRASATE IRRATIA

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:35

Prebentzio teknikari Ana Aizpirirekin berbetan

Ana Aizpiri Arrasateko Udaleko Prebentzio teknikaria elkarrizketatuko dute litroak edateko han eta hemen egiten diren hitzorduak direla eta. Horrez gain, Aitor Arantzabal Bata-sunako mahai nazionalako kidea- rekin ere jardungo dute.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Egurdiko saioa' | 12:15

Izaskun Moia eta emakumeen egoera

Izaskun Moia Emakundeko zuzen- dariari joan den martxoaren 8rako egindako elkarrizketaren harira, erreportajea egin du Miren Urkiol- lak. Emakumearen egoerarekin zeri- kusia duten gaiak plazaratuko ditu astelehen egurdiko saioan.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

Katalunian bizi diren euskaldunak

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Bernardo Atxagari elkarrizketa

Herri Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

Juanjo Gabiñarekin solasean

GOITB programazioa

Astelehena, 3



Su-etenaren gaineko saio berezia
17:47

Su-etena; itxaropen garaia izenburupean, sei debagoien- darren testigantzak entzuteko eta ikusteko aukera eskainiko digu GOITBk.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka: Salomon frogak.
- 15:30 MI. Eguraldia eta burtsa tarte.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 'Su-etena; itxaropen garaia' saio berezia.
- 18:15 Sustraia.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 4



'Berbaire': litroak edateko deiak aztergai
22:15

Ainhua Larrañaga eta Larraitz Ugarte abokatuak eta Miren Elgarresta Artzain Mundu Eskolako arduraduna, Gorka Etxaberekin solasean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea: Antzuzelai harrobia.
- 18:15 Munduari bueltaka.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Ilunpean.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 5



Debagoieneko albisteak
22:15

Egunean zehar ibarrean gerta- tutakoak jarraitu ahal izango ditugu GOITBko albistegiei esker. Deiane Arrieta eta Julen Iriondo dira aurkezleak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio eta Motzean: Abraham Olano eta Igor Elortza.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16 mm: Iñigo Iruretagoienaren 'Mezularia'.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 6



Marrazki bizidunekin gozatzeko aukera
13:20 eta 20:15

Popeye, Cardcaptor eta *Snorkdance* marrazki bizidunak eskaintzen ditu egunero Goiena Telebistak, haurren gozamenerako.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaun ta Jabe.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia.
- Elgetako gauak.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 16 mm.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparorratza: Kanada.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Sustraia.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Berbaire.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 7



'Behazulo' saioa, Goiatz Aranarekin
21:15

Debagoienarroi eragiten dizkiguten gai interesgarriak plazaratzen ditu astero Goiatz Arana kazetariak *Behazulo* saioan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean: Paul Nicholson.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 16 mm: Iñigo Iruretagoienaren 'Mezularia'.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Kamera aurrean



"Laster kaleratuko dugu gure lehen diskoa. Gustura eta ilusioz beteta gaude lan handia egin dugulako"

SERGIO LOPEZ |
LAGASH MUSIKA TALDEKOA
Berriak, 2006-03-30



"Especializazioa da bidea. Piezak Txinatik datoz oso merke, eta pieza bereziak egin beharko ditugu aurrera egiteko"

JOSE MARI ANDONEGI |
CLAUDIO SAN MARTIN SA-KO GERENTEA
Berriak, 2006-03-30

Paul Nicholson

ILUNPEAN

Egubakoitzean, apirilaren 7an, 22:15ean
Oihana Elortzak aurkeztuta



Ikustekoa!

Apirilaren 3a: 066 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, apirilak 3, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 36 euro
2006 bukaerara arte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

082
zozketa

saridunak

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena
zerrendan badago,
ZORIONAK!

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko.
(saridun bakoitzarendako bi).

- Nerea Sarasua Arozena (Elgeta)
- Juan Jose Orueta Trojaola (Aretxabaleta)


Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Aitor Oregi Labaien (Bergara)
- Natali Olazabal Larreategi (Arrasate)

Apirilaren 10eko saria

**EIBAR-
HERCULES**

futbol partidua
ikusteko sei
gonbidapen.
(Saridun bakoitzarendako bi)





Hamarrekoa

KOLDO LASA | SUKALDARIA

"Hasieratik bukaera arte egiten dut dantza ezkontzetan, izerdi baten"

Oihana Elortza

1. Nork erakutsi zizun sukaldaritza? Gure aita eta aitaita sukaldariak izan dira eta haiengandik ikasi dut nik. Frantziara eta Ingalaterrara ere joan nintzen praktikak egitera.

2. Zein da zure espezialitatea? Janari ketuak. Legatz ketua, adibidez, Lasa jatetxeko aspaldiko errezeta da. Gure aitak egiten zuen eta nik ere egiten dut oraindik.

3. Zein jaki duzu gustukoen? Arrautza erreak piper gorriekin. Eta piperrak minak, pikanteak, badira, askoz hobeto. Horrez gain, parrillan egindako jakiak ere asko gustatzen zaizkit, arraina zein okela. Eta jatetxeren batean afaltzen dudanean, sarri eskatzen dut parrillan egindako plateren bat.

4. Egia da bistarekin jaten dugula? Bai, egia da. Hala ere, errazio onak ematea gustatzen zait. Platera txukun eta polit aurkeztea garrantzitsua da, baina ez bezeroa goseak gelditzea. Diseinua eta imajinazioa bai, baina baita kalitatea eta kantitatea ere.

5. Nori prestatuko zenioke afaria gustura? Edozeini. Ordaintzen badu, ze axola dit niri nor den? Ez naiz alderdikierietan sartzen, eta berdin tratatuko nuke zinemako aktore ezagun bat, kale garbitzaile bat edo goi mailako futbol jokalaria bat.

6. Bergara prestatu, kozi-natu, beharko bazenu, zer plater aterako litzazuke? Izokin ketuak, adibidez. Erdi Aroan izokin mordoia zegoen Deba ibaian eta Ozaeta jau-regiko jauntxoek debekatu egiten zieten etxeko morroiei astean birritan baino gehiagotan izokinak prestatzea.

7. Egiten duzu dantza ezkontzetan? Ez naiz gelditu ere egiten. Musika hasten denetik bukatu arte ibiltzen naiz dantzan, izerdi baten.

8. Bergaran egiten dituzu erosketak? Pasaiera joaten naiz batzuetan arraina ekartzera, baina herrian ere erosten dut, noski, produktu freskoak erabiltzen ditut eta. Osasun teknikari bat harrituta gelditu zen behin, kontserbalata gutxi ikusi zituelako. Oso arraroa iruditu zitzaion.



JOSETXO ARANTZABAL

1994ko irailean zabaldu zuen Koldo Lasak Lasa jatetxea Bergarako Ozaeta jauregian. Aurretik, jatetxe zaharrek sukaldetan ibili zen. Michelin gidan eta Estatuko gastronomiako gida berezian agertzen da, besteak beste. Astia hartzen duenean, sukaldea utzi eta mendira joaten da, "ahuntzak bezala ibiltzera"; izan ere, ibiltzea oso gustukoa du.

9. Zuk zaintzen duzu jate-txe inguruko berdegu-nea? Laguntzaileak ditut, baina ibiltzen naiz horretan ere. Orainxe da lore sasoi eta oso koloretsu dago inguru guztia, lorez beteta.

10. Telebista kate guztietan dago sukaldariren bat. Zuk egingo zenuke? Balio egin behar da horretarako ere, eta neuk ez dut nire burua hor ikusten, oso berritsua izan behar da.



Biharamuna

Iñigo Biain

Bidegurutze musikalak

Badauka zerbait musikak gure burmuinean barruraino sartu, eta inoiz ez ateratzeko ahalmena ematen diona. Eta asteburuan ere halaxe gertatu zait. Ezin izan dut burutik kendu 1994ko apirila, zehazkiago esanda, urte hartako Pazko Aste-ko zapatua. Oraindik kasik ezezagunak nituen **Aitor, Joxe, Gor-ka** eta **Iker** musikari gazteek euren bigarren kontzertuan teknikari lanak egiteko eskatu zidaten, eta baita eurekin batera joko zuten beste lau gazte ere: **Angel, Julian, Andoni** eta **Juanmak**. Talde haiek Latzen eta Alter Ego ziren, gero-za zeresan handia eman dutenak. Tira, 12 urte pasa dira ordutik, gauzak ez dira gehiegi aldatu, eta gainera patuak berriz elkartu ditu aipatutako gehienak. Izan ere, eta deitu ezazue kasualitatea hala nahi baduzue, asteburuan bi disko aurkeztu dira Oñatin: Lagash taldeak bata (Alter Ego taldeko kideek eta **Jorge** eta **Sergio** arrasatearrek osatua), eta Potemkin taldeak bestea (Latzen taldeko **Iker** eta **Joxe** ditugu bertan, **Iban** eta **Aixibarrekin** batera).

Kasualitatea gutxi balitz, bi taldeek kale bereko bi tabernatan aurkeztu dute diskoa, eta Latzen abesten zuen **Aitor Uriarte**ren talde berriak ere (UNE) aste honetan kaleratuko omen du singlea. Patua patu, eta kasualitateak kasualitate, guztien bihotzetan bada elkartzen dituen beste izen bat ere: **Juanan**. Bidegurutze batean galdu genuen, asteburu honetan Oñatiko musikariak elkartu dituen baina ilunagoa den bidegurutze batean. Hire omenez.



Škoda Octavia Berria
16.360 eurotik aurrera

Gasolinazko FSI eta TDI motorrak, Tiptronic eta DSG transmisio automatikoak, atzealdeko ardatz besoanitz, direkzio elektromekanikoa, 8 airbag, burueuskarri aktiboak, egonkortasun kontrola (ESP), pneumatikoen presioa neurtzeko sentsorea (TPM), bi guneke Climatronic eta maletatoki zabala, 560 litrokoa.

Octavia 1.6. Active, Penintsularako eta Balearretarako salneurria, garraioa eta Prever Plana barne. Octavia gamaren kontsumoa: [4,9-7,6] l/100 km. CO2 isurketa: [132-182] g/km. Irudiko autoa eta iragarkikoa ez datoz bat.